

# Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2002ko otsailaren 22a / 485. zenbakia

A close-up portrait of an elderly man with grey hair and a serious expression. He is wearing a dark suit jacket over a light blue and white checkered shirt. He is holding a dark, cylindrical object, possibly a microphone or a pen, in his mouth. The background is a solid blue color.

## Ramon Etxaniz

Hirurogei  
urte txistua  
irakasten  
eta berau  
zabaltzeko  
ahaleginean

**OSINTXU:** BABESTUTAKO ETXEBIZITZAK EGINGO DITUZTE/5 • **ESKALADA:** ROKODROMOA BERRITUTA/10


# Udaberria irabazle!



2002KO ARATUSTEETAKO KALE-ANIMAZIOKO SARIA

**150** eurotako bonoa

Bedelkarreko jatetxe eta tabernetan erahiltzeko



San Roke Auzoa, 1  
ELGOIBAR  
Tel. 943 744 132  
Faxa. 943 744 153  
ingenieria@fmh.es  
www.fmh.es

## 2002/2003 IKASTURTEA

Makina Erremintaren Institutuak aukera ezin hobea eskaintzen dizu:

## TXANDAKAKO ENPRESA INGENIARITZA


- ✦ **Enpresarekin elkarlanean** garatutako lanbide proiektua
- ✦ **Lan-kontratua** prestakuntzaren lehen egunetik
- ✦ **Emaitza erakargarriak:** tituludun **%100ek lanean** dihardute eta horietatik **%25ek** zuzendaritzako ardurak daramatzate

### BILERA INFORMATIBOA

- OTSAILAREN 27an, asteazkenean, bilera informatiboa egongo da prestakuntzaren ezaugarriak eta sarrera-baldintzak azaltzeko: 18:30ean Makina Erremintaren Institutuko (IMHko) instalazioak bisitatuko ditugu eta 19:00etan bilera informatiboa hasiko da.



cesi aquitaine  
poitou-charentes




**ATREBENTZIAEZPADA/ Parte hartuko ziñuke 'Operación Triunfo'-n?**



**MARIAN ZUBIZARRETA**  
39 urte

Ez dot iñoiz ikusi. Jakin badakit bi Dabid darella, bat Bustamante, eta Rosa bat be bai, lehen oso potola zeguana. Baiña ez daukat idearik be ez, lankidiei entzundakua bakarrik.



**IÑIGO IBAIBARRIAGA**  
25 urte

Ez neuke parterik hartuko, oso ahots txarra daukat-eta. Ikusi izan dot iñoiz, baiña ez naiz iñoren jarraitzaillia; bueno, igoa Bustamantarena, mutil hori oso majua da-eta.



**IGNACIO ARISTI**  
40 urte

Bai, parte hartuko neuke. Oso ikusgarria da programia eta nik, gaiñera, oso ondo abesten dot. Ikusi be egin dot, ez beti, baiña pixka bat jarraitu dot. Gehixen Gisela gustatzen jaten.



**TOÑI GUTIÉRREZ**  
34 urte

Ez; nik ez daukat bokaziñorik. Programia be ez dot jarraitu, baiña finalaren ostian penaz nago ez ikustiagaitik. Mundu danak ikusi dau, eta, antza, oso programa politta izan da.



**JOSE ANTONIO ETXEZARRETA**  
38 urte

Ez neuke parterik hartuko. Telebisuñuan emon dabean pixka bat jarraitu dot. Ez egunero, baiña batzuetan bai, eta gehixen gustatu jatena Rosa izan da. Oso majia da Rosa.



**CONSUELO TORRIJO**  
60 urte

Ez. Ez daukat ahotsik ez eta edaderik be ez. Baiña programia asko gustau jat eta asko jarraitu dot. Oso entretenidua izan da, eta parte hartzaille danak oso jatorrak die.

**TXALOAK ETATXISTUAK**



**TXISTUAK KAKA UGARI** Kaka ugari, bai, kalean aurkitzen dena. Zakur kaka esan nahi dugu. Nor bere zakurrak nor bere etxeko pasilloan edo dena delakoan egitea nahi ez duguna kalean ere egin behar ez dela ez daki, oraindik ere, zakur jabe askok. Halaxe esan digu gizonetako batek, eskuineko hankari haserre begiratzen ziola. Egia esan, gutxi jasotzen dituzte zakurren eginbeharrak. /M.B.

**ETABARRUAN...**

ASTEKO BERRIAK /7

**Ramon Etxaniz txistularia**

Gure Ametsakoek omenaldia egingo diote, txistuaren zabalkundearen egin duen lanagatik.

KIROLAK /10

**Igeri elkarteko infantilak**

Bergara Igeri Elkarteko infantil nesken errelebuak 2. postua lortu zuen 4x100 estiloko proban.

KULTURA /12

**Taun Taun gaur Novedadesen**

Herriko antzerki taldeak *Kont Arte* lana egingo du gaur, 22:30ean, Novedades aretoan.

**ASTEKODATUA**

**40,5**

**LITRO EURI EGIN ZUEN M<sup>2</sup>KO EGUENEAN, HILAREN 14AN**

Azken asteetan, gauden sasoirako euri gutxi egiten duela entzuten da maiz. Aste honetan, baina, badirudi gauzek zuzentzeko bidea hartu dutela. Eguenean, hilaren 14an, 40,5 l/m<sup>2</sup> izan ziren.

**BESTEKEESANA**

**Garzon epaileak Batasuna legez kanpo utziko du, seguru. Auto luzea idatziko du -edo, agian, komisiarioren batek idazten duena sinatuko du-. Eta datuak, izenak, datak, siglak, atzerriko sumarioei erreferentziak eta legearen haraindiko balorazioak erabiliko ditu bere erabakia sustengatzeko. Komunikabideen "koru"-ak alabantzak kantatuko ditu eta tertuliano rumbazaleen txaloak joko dituzte. Moncloa bizi den talibanak bigotetxoaren azpian irri egingo du eta, beharbada, zera hori erreplikatzera animatuko da: Ez ginela ausartuko uste zenuten?. Eta desorientatua dagoen oposizio leialaren nagusiak ere zerbait esango du, agian, berak ere ulertuko ez duen zerbait.**

**MARTIN GARITANO GARA/02-02-20**

**BERAIEKDIÑOĖ/ Iñigo Iñurrategi**



*Trenbidiak bi zubi*

**E**stomagua betetzeko negar eittia bezelakoik ez ei dao, hori ondo dakixe inguruan perretxikuak bezela hazten ai dien umiek, eta ama aittengandik nahi dabean nahi dabena lortu ahal izateko hor hasten die arrantza batian.

Beste batzuk, ordia, bizitza guztian negar eindra be plakiak jota egoten ga, geuretzako nahi geunkien hori sekula lortu ezinda. Akaso negar arrantza ofizio horretan ganorabako hutsak izango ga (hori be ez ete dou ingo ondo?)... akaso negarra entzun biharko leukienak ez dau entzuten, gorrerixiak jota, edo hauteskundiak urrin samar darella ondiokan igarritta...

Kontua da azkenian udaletxia konturatu dala (baten baten negarrak entzunda) lehengo Lasagabasterreneko parian daon trenbideko zubixa, barandilla e.a. konpondu baten premiñan zarella... arrazoiz keja da jendia, ta azkenian

lortu da zentzuzkoa emoten zeban zehozer lortzia, izan be bertatik pasatzen dan jende pillia, zahar ta ume, ume ta zahar... espero dot txukun geratzia lehengo beheko estaziñoko (requiem in pacem) paraje hori.

Baina beste batzuk be Algodonerako zubixan gora ta behera kakaumiak ginala hasi ginan, egunero eskolara, eta harrezkero eurixa sarri ein dau, ilunpetan, uraundixekin, hasieran trenbidia zanian, gero bariante ondolik,

eta beti eske bakarrakin: argixak ipintzia ta zubixa ta bidia txukuntzia.

Negar eitten be ganorabakua izango ga, seguru. Tristia da, baina Mayc onduan eskola barrixa ta etxiak ein bittartian ez dozkue ganoraz jarriko bidia, eta orduan be ikusikou zelan geratzen dan Ozetarainoko zatixa.

Kleenex pakete bat, mese-dez, luzerako izango da eta.

**"Tristia da Mayc onduan eskola barrixa ta etxiak ein bittartian ez dozkue ganoraz jarriko trenbidia"**

**Berrigara**

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33  
20570 BERGARA  
Tel.: 943 76 03 97  
Faxa: 943 76 29 77  
Posta-e: berrigara@goiena.com

**ZUZENDARIA**  
Edu Mendibil  
**ERREDAKZIOA**  
Monika Belastegi,  
Aintzane Irizar  
**MAKETAZIOA**  
Iñaki Iturbe

**PUBLIZITATEA**  
Mireia Larrañaga  
**KOLABORATZAILAK**  
Luis Mari Agirre  
Maitane Arizabaleta  
Juan Martin Elexpuru  
Miguel Angel  
Elkoroberezibar

**LEGE-GORDAILUA**  
SS-50/91  
**ISSN**  
1130-6599  
**TIRADA**  
5.900 ale

**Goiena**  
Komunikazio Zerbitzuak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako Kultura saila



Gipuzkoako Foru Aldundia



Bergarako Udala



Antzuolako Udala



Elgetako Udala

**GUARDIAKOFARMAZIAK**

**EGUBAKOITZA, 22**  
GUALLAR. San Antonio 5. .... 943 76 11 05  
**ZAPATUA, 23**  
ESTELLA. Matxiategi 5. .... 943 76 19 63  
**DOMEKA, 24**  
ESTELLA. Matxiategi 5. .... 943 76 19 63  
**ASTELEHENA, 25**  
MOZOS. San Pedro 4. .... 943 76 12 15  
**MARTITZENA, 26**  
CAMACHO. Oxirondo 4. .... 943 76 11 74  
**EGUAZTENA, 27**  
PUY. Barrenkale 25. .... 943 76 16 87  
**EGUENA, 28**  
GUALLAR. San Antonio 5. .... 943 76 11 05

**TELEFONOJAKINGARRIAK**

**OSASUNA / LARRIALDIK**  
Anbulatorioa (txanda) .... 943 76 24 40  
Bergarako udaltzaingoa .... 943 77 91 06  
Antzuolako udaltzaingoa .... 943 76 62 46  
Ertzaintza .... 943 76 53 40  
Osasun etxea .... 943 76 24 40  
Asepeyo .... 943 76 16 43  
Pakea .... 943 76 13 49  
Angiozarko medikua .... 943 78 90 27  
Antzuolako medikua .... 943 76 62 23  
Odol emaleak .... 943 76 16 24  
Alkoholiko Anonimoak .... 943 76 51 06

**GARRAIOAK**  
Taxiak .... 943 76 19 50

**UDALA**  
Bergarako Udaletxea .... 943 77 91 00  
Antzuolako Udaletxea .... 943 76 62 46  
Udal Artxilboa .... 943 77 91 32  
Igerilekuak .... 943 76 20 51  
Kultura etxea .... 943 77 91 58  
Liburutegia .... 943 77 91 62  
Kiroldegia .... 943 76 56 41  
Mizpirualde egoitza .... 943 76 13 68

**BESTELAKOAK**  
Epaitegia .... 943 76 14 92  
Erregistroa .... 943 76 13 15  
Jardun .... 943 76 36 61  
Idolaz .... 943 76 65 08  
Erretiratuen etxea. Bergara .... 943 76 21 40  
Antzuolako erretiratuen elk. .... 943 76 62 71  
Postetxea .... 943 76 26 85  
Bedekar .... 943 76 04 68  
Akulu AEK. .... 943 76 05 18  
Udal euskaltegia .... 943 76 44 53  
Bergarako notarioitza .... 943 76 10 73

**MEZAK**

<b>Santa Marina</b>	Domekak: 10:30.
Domekak:	<b>Labegarieta</b>
11:30, 13:00.	Domekak: 11:00.
Zapatuak: 19:00.	<b>San Lorentzo</b>
Lanegunak: 19:15.	Zapatuak:
<b>San Pedro</b>	20:00.
Domekak:	<b>Angiozar</b>
09:30, 12:30.	Domekak:
Zapatuak eta	11:30.
lanegunak: 19:00.	<b>Moja</b>
<b>Sierbak</b>	<b>Zaharrak</b>
Lanegunak: 19:30.	Lanegunak: 8:00.
<b>Osintxu</b>	<b>Mizpirualde</b>
Domekak: 12:30.	Lanegunak: 11:45.
Zapatuak: 19:00.	Zapatuak: 17:30.
<b>Elosu</b>	<b>Antzuola</b>
Domekak: 10:30.	Domekak:
<b>Ubera</b>	09:00, 11:30.
Domekak:	Zapatuak eta
10:30.	lanegunak: 19:30.
<b>San Juan</b>	<b>Uzarraga</b>
Domekak: 11:00.	Domekak: 10:00.
<b>Elorregi</b>	
<b>URTE-MEZAK</b>	
<b>Santa Marina</b>	
Hileko 2. astean, domekan 11:30ean.	
<b>San Pedro</b>	
Hileko 3. astean, domekan 12:30ean.	

**OHARRAK**

**1954KO BERGARARRAK**  
1954an jaiotako bergararrek afaria egingo dute martxoaren 2an Azpeitxi jatetxean. Izena ematea (15 euro) Etxenagusia kafetegian edo Azpeitxi jatetxean.

**1975EKO BERGARARRAK**  
1975ean jaiotako bazkaria martxoaren 2an Txarrantza jatetxean. Izena ematea (15 euro) San Martin plazako Kutxan irekitako kontuan.

**ODOL ATERALDIA**  
Odol ateraldia datorren eguaztenean, hilak 27, Seminarioan, 18:30ean.

**SAGARDOPEGIRA IRTEERA**  
Jardunek eta Soralezeko Pil-Pileanek martxoaren 8an Hernaniko Otsua-Enea sagardotegira afaltzera joateko irteera antolatu dute. Trikitilariak eta bertsolariak ere izango dira. Txartelak Pol-Pol, Depor eta Kortazar tabernetan otsailaren 25era arte. Jarduneko bazkideek 26 euro eta gainerakoek 29 euro ordaindu beharko dituzte. 943 76 08 19.

**ORFEOIKO BATZARRA**  
Orfeoiak urteko batzar orokorra egingo du datorren eguenean, otsailak 28, 21:00etan Zabalotegin. Bazkide eta orfeonistak gonbidatuta daude.

**JARDUNENAGENDA**

**ASTEBUKAERAKO JARDUERAK**  
*Bergara, gure herria* gaztetxoendako lehiaketa izango da zapatuan, Kartezelan, 17:00etan. Domekan, 16:30ean, Osintxura bizikleta irteera egingo dute.

**DINAMIZATZAILE LANPOSTUA**  
Haurren dinamizatzaile bat behar du Jardunek egun erdiz. 943 76 36 61.

**URBANOENORDUTEGIA**

**San Lorentzo / San Juandik irteerak**  
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.  
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraleze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurra-dero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.  
**Labegarieta / Olabarrenetik irteerak**  
07:20, 07:35 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.  
GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espolia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Muger-tza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

**ORAINDELA 10URTEBERRIGARAN**

**Miguel Glez. Bastida musikaria omendu zuten**

Santa Marinako parrokiak Miguel Gonzalez Bastida musikaria omendu zuen 1992ko otsailaren 23an, 50 urtez parrokiako organista izan ondoren. 1941ean utzi zion aitak Santa Marinako organoaren ardura Migueli. Udal Musika Bandako eta Orfeoiko zuzendari ere izan zen.



**BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru**

**"Ziarretzinka"**

Zeharka etzanda. -Ziarretzinka jarritta euzki-epela artzen majo dago ori.



**HAUGIROA!**

**MINIMOA**  
Martitzena, 19 **2°C**

**MAXIMOA**  
Eguaztena, 13 **20°C**

**ASTEKO EURIA (l/m²)** **93,9 L**

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 13	20°C	2°C	17 l/m²
Eguena, 14	8°C	5°C	40,5 l/m²
Egubakoitza, 15	8°C	5°C	5,1 l/m²
Zapatua, 16	8°C	5°C	1,6 l/m²
Domeka, 17	7°C	5°C	2,5 l/m²
Astelehena, 18	8°C	5°C	23,3 l/m²
Martitzena, 19	11°C	2°C	3,9 l/m²

San Juan auzoan jasotako datuak

**ASTEKOFILMAK**

**'AMOR CIEGO'**

ZUZENDARIA: BOBBY FARRELLY. AKTOREAK: GWYNETH PALTROW, JACK BLACK, JASON ALEXANDER.

**HARIA.** Mauricio eta Hal tabernaz taberna ibiltzen diren lagun minak dira. Rosemary (Gwyneth Paltrow) neska lodi batekin maiteminduko da Hal, eta neskak gorputz liraina duela uste izango du...

**TOKIA ETA ORDUA.** Novedadesen. Zapatuan 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean, domekan 17:00etan, 19:30ean eta 22:15ean, eta astelehenean 19:30ean.

PUNTUAZIOA: ●●●●●



**'LA CASA DE LA ALEGRIA'**

ZUZENDARIA: TERENCE DAVIS. AKTOREAK: GILLAN ANDERSON, DAN AYKROYD.

**HARIA.** Edith Warton idazlearen nobelan oinarritutako filma. 1900. urteko New Yorken girotuta, senar bila dabilen emakume baten gorabeherak azaltzen zaizkigu. Bere edertasunak arazoak sortuko dizkio, tartean eskar-dalua piztuko delarik.

**TOKIA ETA ORDUA.** Novedadesen. Eguenean, otsailak 21, 20:00etan.

PUNTUAZIOA: ●●●●●



**Silvestre Muñoz, s.l.**  
**pinturak**

610 25 99 82  
610 25 40 37  
943 76 24 11  
Amillaga 1, 10 pabilioia.  
20570 BERGARA

Pintura-lanak orokorrean  
•  
Pintura industrialak  
•  
Zoru arinak: sintasolak, moketak...

**izeder**

**ARTE DEKORATIBOKO ikastaroak**

943 76 71 05.  
Arruriaga 2. BERGARA

**HIRIGINTZA**/ Osintxuko Rodamientos Eder SL da Uberara joango den enpresa eta hark utzitako orubean babestutako etxeak bultzatuko ditu Udalak

# Zer esana sortu du Udalean errodamendu enpresa bat Uberan kokatzeko baimenak

MONIKA BELASTEGI

Udalak eta Osintxuko Rodamientos Eder SL enpresak hitzarmena sinatuko dute: Udalak enpresa erosi eta babestutako etxeak bultzatuko ditu han. Bestetik, Uberako Criadero de Codornices zenaren eraikinean kokatzeko baimena emango dio Osintxuko lantegiari.

Asteleheneko osoko bilkuran Udala eta Rodamientos Eder SL enpresaren artean sinatuko den hitzarmena onartu zuten EAJ-EA eta PSE-EE alderdiek aldeko botoekin. Batasunak, aldiz, ezezkoa eman zion hitzarmen horri.


Hitzarmen horren arabera, Udalak Osintxun dituen pabilioiak erosi ditzake aipatutako enpresari 117.699,15 eurotan (19.583.490 pezetatik). Pabilio horiek 462,16 metro kuadroko azalera dute, eta beste 164,54 metro kuadroko ate-aurrea.

Hitzarmenaren beste ataletako batek jasotzen duenaren arabera, Rodamientos Eder SL enpresa kokatuta dagoen orubean babes ofizialeko etxebizitzak eraikitze-ko etxegunerako lur gisa sailkatuko ditu Udalak.

## UBERARA JOATEKO BAIMENA

Horrekin batera, hitzarmenak ere jasotzen du, Rodamientos Eder SL enpresak bere jarduerarekin jarrai dezan, bere garaian Uberan, Criadero de Codornices enpresa zegoen pabilioi zaharra erosteko aukera ematen dio Udalak. Eta hori ahalbidetzeko Udalak hartzen du konpromisoa pabilioi zaharra dagoen lurra lur industrial gisa sailkatzeko.

Birkalifikatuko duten lursailak 6.828 metro kuadroko azalera du, eta aprobetxamenduari



Uberako Criadero de Codornices zegoen pabilioian kokatzeko baimena du Osintxuko Rodamientos Eder SL enpresak.

dagokionez, metro kuadro bakoitzeko 0,35 metro kuadrokoa izango da.

## BATASUNA EZ DAGO ADOS HITZARMENAREKIN

Osoko bilkuran ezezkoa eman zion Batasunak hitzarmenari, eta hirigintza batzordeak gai honek guztian egin duen kudeaketa eskasa salatzen zuten. Batasunako Jesus Mari Garitanok hainbat argudio eman zituzten euren ezezkoa azaltzeko orduan.

Garitanok gogor salatu zuten

Ubera auzoan, nekazal lur sailkapena duen eremu batean erabilera industrial baimentzea. Hau da, lurren birkalifikazioa egitea. Udalak egin duen operazioa traje bat neurriera egitea bezalako delako aipatu zuten, eta baita baimen hori ematean, Uberan 6.828 metro kuadroko isla bat sortu dutela ere. Horrez gain, eremu horretan enpresak izango duen hirigintza aprobetxamendua zehazten ez zela aipatu zuten, "hori denean horrelako hitzarmen batean agertu beharreko gauza

garrantzitsuenetako bat.

Bestalde azpimarratu zuten, Rodamientos Eder SL enpresa Osintxun dagoen pabilioitik irtezeko ahalmena Arau Subsidiarioek ematen dutela, eta Arau Subsidiarioen arabera, enpresa horrek 2004rako handik irtezeko betebeharra duela. Beraz, "ez da inongo hitzarmenik behar aipatutako irteera bultzatzeko" Garitanok gehitu zuenez.

Halaber gogoratu zuten, hitzarmenak ez duela ahalbidetzen Rodamientos Eder SL enpresako

pabilioietan etxebizitzak egiteko aukera. Hori Arau Subsidiarioetan betebeharrak gisa jasotzen den gaia dela gehitu zuten Garitanok.

Bestalde, herritarrendako etxebizitza merke eta duinak sustatzeko modu bat baino gehiago daudela gogoratu zuten Batasunako zinegotziak eta bi aipatu zituzten: alde batetik, Udalak etxebizitzak eraikitze-ko lur gehiago erostea eta beste aldetik, Kutzak etxebizitza erostera doazen herritarrei kreditu merkeagoak jaretzea.

# EHEren azken kanpainari hainbat eragile lotu zaizkio

MONIKA BELASTEGI

Euskal Herrian Euskaraz taldeko kideek "Eskolak euskaldundu behar du" kanpainaren berri-eman zuten pasa den egunean prentsurrekoan. Hainbat eragileren atxikimendua lortu dute dagoeneko.

Joan den egunean eman zuten EHEko kideek "Eskolak euskaldundu behar du" kanpainaren berri. Euskal Herria osoan martxan jarritako kanpaina da hori eta hainbat eragileren atxikimendua lortu du. Bergararen

kasuan Jardun, LAB, Aranzadi ikastola, Miguel Altuna institutua, San Martin Agirre ikastetxea, ELA, AEK eta Ipintza institutua.

## ESKOLAK EUSKALDUNTZEKO GUNE

EHEko kideek azaldu zuten, gaur egun Euskal Herrian dagoen hezkuntza sistema ezberdinen ondorioz, eskolak ez du haur eta gazte guztien euskararen ezagutza bermatzen. Eta egoera horrela mantentzeak euskararen bizi-erapena kolokan jartzen duela gehitu zuten.

Bestalde, Euskal Herriko hezkuntza euskara dela gogorazi

zuten, eta berau jakitea euskal herritar orok duen eskubidea dela. Horren harira, eskolak belaunaldi guztiek euskaraz jakiteko ezinbesteko funtzioa betetzen duela azpimarratu zuten. Hau da, oinarriko hezkuntza bukatzean haur eta gazte guztiek euskara menperatzeko ezinbesteko funtzioa betetzen dutela. Hori horrela, dagoneko neurriak hartzea ezinbestekoa dela azaldu zuten, horretarako gaur egun euskalduntzen ez duten irakaskuntza ereduak gaituz eta euskaldunduko duen hezkuntza sistemaren alde eginez.



Euskal Herrian Euskarazeko kideak egunean emandako prentsurrekoan.

HIRIGINTZA/ Oraindik ere Udalak ez du zehaztu zein erabilera emango dion

# Mariaren Lagundiko eraikin berriena, Udalaren esku

MONIKA BELASTEGI

Mariaren Lagundiko eraikin berria bezala ezagutzen duguna Udalaren esku geratuko da. Horretarako, hitzarmena egingo du Ortuibar eta Mauricio Arregi enpresekin. Horiei, trukean, Miguel Altuna osatzen duten bi zatietako bat emango die Udalak.

Asteleheneko osoko bilkuran onartu zuten hitzarmen hori, EAJ-EAren, Batasunaren eta PSE-EEren oniritziarekin. Horren arabera, Ortuibar SA eta Mauricio Arregi SA enpresek Mariaren Lagundiako ikastetxe berri izenarekin ezagutzen zena Udalaren esku utziko dute. Trukean, Udalak Miguel Altuna institutua osatzen duten bi zatietako bat –udal pilotalekutik hurbilen dagoena– emango die bi enpresei. Hitzarmenak jasotzen duenez, bi eraikinen gainean egindako balorazioaren arabera, ez dago alderik bi eraikinen balioen artean; ondorioz, trukaketa modu automatikoan egingo dute.

Udalaren esku geratuko den eraikinak behe solairua eta beste hiru solairu ditu, eta oraindik ez du haren erabilera zehaztu.

Bi enpresen esku geratuko den eraikinari dagokionez, etxebizitzetarako bideratuko dute. Horretarako, Udalak eraikuntza birkalifikatu egingo du, hau da, etxegunerako lur ezaugarria emango dio. Horrez gain, eraikinaren aprobetxamendua ere zehazten du hitzarmenak: eraiki ahal izango dituzten gehienezko etxebizitza kopurua hogeitaz izango da. Bestalde, garajeetarako bi solairu, erabilera komertzialerako behe solairu bat eta etxebizitzetarako beste hiru izango ditu.

## AROSTEGI ETXEA EROSI KUTXARI

Bilkuran onartutako beste gaietako bat Kutxari Arostegi etxe-ko lokala erostea izan zen. Duela bi aste aurreratu genuenez, Arostegi etxearen behe solairu eta sotoa erosi dizkio Udalak Kutxari, erakusketa areto gisa birgaitzeko. Udalak 346.729 euro ordainduko dizkio Kutxari (57 milioi



EDU MENDIBIL

Antzina Mariaren Lagundia ikastetxearena izan zen eraikina Udalarena da orain.

*Udalak ez du oraindik zehaztu eskuratu duen eraikinari emango dion erabilera*

pezetatik gora), eta kopuru bereko mailegua kontratatu du banketxe horrekin. Ezaugarri hauek ditu maileguak: hamabost urteko epea eta Euriborra gehi %0,20.

Erosketarekin eta mailegu eskaerarekin bat egin zuten EAJ-EA, Batasuna eta PSE-EE alderdiek osoko bilkuran. Hala ere, Batasuneko kide Jesus Mari Garitanok hainbat zehaztasun egin zituen. Garitanok esan zuenez, erosketarekin bat dator bere alderdia eta lokalaren lekua oso aproposa iruditzen zaie erakusketa areto bihurtzeko. Kutxaren

*Miguel Altunako eraikinean etxebizitzak egingo dituzte. Gehienez ere, hogeitaz*

jarrera, aldiz, salatu egin zuen: "Kutxaren helburuetako bat ekimen soziala bultzatzea bada, Bergarako herritarrekin izan duen jarreraren ez da halakorik antzematen". Garitanok, hori azaltzeko, gogoratu zuen udal-etxeko egokitze lanek iraun zuten bitartean –92ko apiriletik 95eko martxo arte– orain erosi duten Arostegi etxe-ko lokala alokatu eta han jarri zituztela hainbat bulego. 36 hilabetez izan ziren, eta hilabete-ko 500.000 pezeta ordaindu zituzten Kutxari errentan, guztira 21,5 milioi pezeta.

## LABUR

### Agorrosingo zubiko baldosak eta Osintxuko espaloiak konponduko dituzte

Asteleheneko osoko bilkuran herrian egin beharreko hainbat konponketaren gaineko erabakiak hartu zituzten. Batetik, Agorrosingo zubian baldosa berria jarriko dute. Lanek 10.206 euroko aurrekontua izango dute (1.700.000 pezeta inguru), eta esleipena lehia-kerara aterako dute.


Eta, bestetik, Osintxu auzoko espaloiak konpontzeko baldintzak onartu zituzten asteleheneko osoko bilkuran. Konponketa lan horiek espaloiak konpontzeko lanen bigarren faseari dagozkio, eta aurrekontua 45.449 eurokoa izango da (7.500.000 pezetatik gora).

### Sor Juana Ines de la Cruz omenduko dute martxoaren 1ean Udaleko ekitaldi baten

Udalak eta Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteak, Juana Asbaje-koaren –Sor Juana Ines de la Cruz– jaiotzaren 350. urteurrenia dela eta, omenaldi eta oroitzapen ekitaldia egingo dute datorren egubakoitzean, martxoaren 1ean, osoko bilkuren aretoan, 19:00etan.

Mexikoko San Miguel Neplanta jaio zen, 1651. urtean. Aita bergararra zuen. Sor Juana Ines sortzaile handia izan zen, eta *Dezima Musa* ere deitu izan zaio.

Haren lanek –poetikoak, batik bat– mirespen handia sortu dute haren aztertzaileen artean. Gero eta ugariagoa dugu literatura *sorjuanista* delakoa, eta gero eta harridura handiagoa sortzen du haren lanaren aberastasunak.



### Hondakindegia, metro batzuk harantzago

San Kristobalgo hondakindegia alternatiboa hainbat metro desplazatuko dute, Eibar-Gasteiz autobideko lanak direla-eta. Momentuz irekita jarraituko du, metro batzuk gorago egingo dutena eraiki arte, hain justu ere. Berria oraingoaren ia berdina izango da, Mankomunitateak eskatutako aldaketa batzuk salbu: altuera handiagoko edukiontzienak bi fosa.

# INFERNUKUA TABERNA

Masterreka 23. BERGARA. 943 76 18 49

# GURIDI altzariak

Era guztietako  
altzariakArtekalea 8. BERGARA  
Tel. 943 76 31 02

# IRURAK PINTURAK S.L.

ERA GUZTIETAKO LANAK  
MOKETA ETA SINTASOLA  
IZTUKU ESPONJATUAPAPER PINTATUAK  
HAREA ZORROTADA  
IZTUKU FALTSUAAITZITURRI 6 • 286 POSTA KUTXA • 20570 BERGARA  
TELEFONOAK: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984  
FAXA: 943 76 09 32

ELKARRIZKETA

RAMON ETXANIZ/UDAL TXISTULARI BANDAKO ZUZENDARIA

# “Txistularien eginkizunek behera egiteko arrazoietako bat autoen ugartzea da”

MONIKA BELASTEGI

Ramon Etxaniz txistularia omenduko dute Gure Ametsa elkarteak kideek martxoaren 7an. Bergaran txistuaren irakaskuntzan eta zabalkundearen egindako ibilbidea eskertu nahi diote. Hau kontatu digu guri horren gainean.

### Omenaldiak ilusiorik egin dizu?

Sorpresa hartu nuen. Norberarentzat eguneroko lana hori da, eguneroko lana; eta sorpresa hartu dut.

### Noiz hai zinen txistulari eta zergatik?

Txikitatik, duela hirurogei urte inguru. Etxean azaldu zen txistu bat, eta halaxe hasi nintzen. Solfeoa ere ez nekien asko, baina Baso Txoritxo piezarekin hasi nintzen eta harek eman zidan pozarekin, aurrera jarraitu nuen.

### Autodidakta izan zara.


Bai. Eta gero pixka bat gehiago ikasteko asmoarekin, Boni Laskurainekin hasi nintzen. Harek eman zizkidan klase batzuk, eta aurrera segitzeko gogoia nuela ikusita, bandarako hartu ninduen, hogeita bat, hogei ta bi urte nituela.

### Orduko txistulari bandaren eginkizuna eta gaur eguneko asko aldatu dira?

Bai. Lehen elizkizunetako prozesioan lagundu egiten genuen. Pazkoetan, San Martin, Santa Marina eta San Pedro egunetan laguntzen dugu orain. Lehen gehiago: Korpus egunean, Aste Santuan eta, orohar, jai handi gehienetan.

### Eta zein izan daiteke behera egiteko arrazoia?

Autoak izan ziren arrazoietako bat. Zirkulazioa ezin zela moztu prozesiotarako, eta eliza barrura mugatu zen jai bakoitza. Orain barianteak daude, baina lehen, autoak ugartzen joan eta herri barrutik igaro beharra zuten.



MONIKA BELASTEGI

*“Arazoa ez da txistulari kopuruak behera egin duela, eginkizunak gutxitu direla, baizik”*

### Dantzaldietan jardun duzue.

Bai. Bandak jotzen zuen saioa neguan 6-8etara jaiero. Hiru tanda izaten zuten, eta hiru tanda horien bitartean txistulariok jotzen genuen. Bandak pasodoble, balsa eta horrelakoak, eta txis-

*“Txistuarekin fandango eta arin-arinaz gain, oso erreperitorio zabala egin daiteke”*

tulariok dantza suelta. Hori plazan izaten zen.

### Irakasle ere ibili zara?

13-14 urte neuzkala, gerra ostean, herrian ez zegoen dantza talderik, eta Udala taldeak sortzeko nahian zebilen. Hori horrela, Puja-

na izeneko bat ekarri zuten Donostiatik taldeak sor zituzan. Harekin hasi ginen bi talde gaztetxoagoak eta 13-14 urtekoak.

Hura ere galdu zen, eta 58an, anaiak eta biok berriz atera genituen aurrera dantza taldeak.

### Dantza berri bat ere asmatu zenuten.

Aita Zamorak esan zigun, Eloreko Balentin Berriotxo dantzarien patroia egin nahi zutela, eta dantza bat asmatu behar genuela Elorriorako.

Boni Laskurainekin egin nuen berba, eta harek esan zidan bazuela pieza bat gertatuta eta emango zidala. Pieza hura moldatu egin nuen, dantzarako jarri nuen anaiarekin batera, Berriotxoaren dantza, hain justu ere. Ondoren, San Martin egunean Bergaran egin genuen lehen aldiz.

Handik lau-bost urtera, hirurogeiko hamarkadan, Bilboko dantza berrien txapelketan aurkeztu genuen dantza, eta bigarren saria jaso genuen.

### Dantzan bai, baina txistu irakasle ere ibili zara.

Dantzan irakasten aritu ginen sasoi berean, txistua gustuko zuten gaztetxoak gertatzen nituen txistua jo zezaten dantzarako. Hogeita bat neska-mutiko prestatuko nituen.

### Txistuarekiko zaletasunak behera egin du?

Txistulari asko dago, behera egin duena da beren eginkizuna. Bizimodua ere asko aldatu da. Gaurko gazteak ez dira herrian geratzen, kanpora ateratzen dira, eta horregatik banda edo txistu berbenarik ez dago.

### Zer izan da txistua zuretzat?

Bizimodua atera ez, baina pozgarria bai.

### Fandangoa eta arin-arina egiteko balio du, bakarrik, txistuak?

Ez, erreperitorio zabala egin daiteke txistuarekin fandango eta arin-arinaz gain, eta leku egokian jotzen denean apreziatu egiten dute.

LABUR

### Sokamuturraren alde eta zezenketak kentzeko ekimena

Bergarako jaietan sokamuturra berreskuratzeko eta entzierroak eta zezen plaza kentzeko ekimena jarri berri dute martxan hainbat herritarrek. Hori horrela izanik, sinadura bilketa egingo dute San Martin plazan otsailaren 24an eta martxoaren 2 eta 3an aipatutako lagunek.

Sinadurak batzeko mahaia goiz eta arratsalde jarriko dute: 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara. Horrez gain, sinadura emateko aukera ere izango da honako toki hauetan: Arrano, Pol-Pol eta Zuhaitzi tabernetan eta Kultura Etxean.


### Bertso afaria egongo da Artatse elkartearen

Martxoaren 2an bertso afaria egongo da Artatse tabernan Amets Arzallus eta Sustrai Colina bertsoariekin, 21:00etan. Menua honakoa izango da: berakatz zopa, bakailaoa saltsan, gazta eta irasagarria eta kafea eta kopa. Prezio arrunta 18 eurokoa izango da, eta 10 euro, berriz, langabetuendako.

Sarrerak salgai daude, dagoeneko, honako toki hauetan: Arrano taberna, Pol-Pol taberna eta Kortazahar taberna.

### Iazko enpresa berak kudeatuko du turismo bulegoa

Iazko enpresa berak, North Incoming Service-k kudeatuko du aurten turismo bulegoa. Hori horrela, honako data hauetan egongo da zabalik: Aste Santuan martxoaren 15etik apirilaren 7ra, biak barne; udan, ekainaren 1etik irailaren 30era, biak barne; azaroan, 1ean, 2an eta 3an, eta abenduan, 6an, 7an eta 8an.



**JUAN ANTONIO ENA ENEKOTEGI**

olio pinturak  
marrazkiak  
gouacheak

NAHIKARI taberna. Masterreka 20.  
Bergara. Tf. 943 76 57 71

**FRONTOI**



**TABERNA**

Fraiskozuri z/g.  
BERGARA  
943 76 05 09

**AZPEITXI**

**Jatetxea**

Aranerreka 13 behea. Bergara  
943 76 55 00

## ZUHAITZAK PROTAGONISTA

**Z**uhaitz eguna izanik, bi ekimen antolatu zituen Udaleko Ingurumen batzordeak zaturako. Goiz osoan azoka egon zen San Martin plazan; baso lanerako tresneria eta landareak egon ziren ikusgai eta salgai. Bestalde, ekintza sinboliko bat ere egin zuten: San Martzialera joan zen lagun talde bat hainbat zuhaitz landatzera.



## ERROMERIA ERRALDOIRAKO HANKAK BEROTZEN

**M**aiatzean "Dantzara Plazara" erromeria erraldoia egingo dutela eta, hainbat herritar trikiti dantzak ikasten ari da Moises Azpiazu taldekoen eskutik. Zapatu goizean harrapatu genituen guk arin-arin eta fandango doinuen artean. Han ziharduten pausoak ikasi eta entseatzeko. Maiatzeko ekitaldi horretarako dantzak ikasi nahi izanez gero, oraindik badago izena emateko aukera Moises Azpiazu taldekoei deituta. Gogoratu doakoa dela ikastaroa. Baldintza bakarra, maiatzean plazara ateratzea dantzara.



## KORTA-ZAR Txokolategia

*Pintxo eta ogitartekoak  
Etxeko ogia*

**ENKARGUAK HARTZEN DIRA**

Barrenkalea 16. Tel.: 943 76 20 62

## SANTOS




**Etxetresna elektrikoak  
eta argiztapena**

Masterreka 2. BERGARA  
Tf. 943 76 26 10

## ZABALA

JATETXEA • OSTATUA

**JAUNARTZEAK,  
EZKONTZAK, BATAIOAK,  
KINTOENTZAKO  
BAZKARIAK...**



Labegaraieta, Ibarra 14  
BERGARA.

Tf. 943 76 20 07 - 76 42 57

**1929az geroztik zure zerbitzura**

## IBARGYREN PENTSYAK

BIONA pentsuen biltegia,  
BIOTER produktuak,  
haziak eta bestelako  
nekazal produktuak



San Pedro 3. BERGARA.  
Tf. 943 76 23 79

## REMENTERIA Altzariak

Egongelak  
Logelak  
Aukera guztiak  
Enkarguan

Artekalea, 6  
BERGARA  
943 76 13 29



> Gremio guztietarako  
neurritza egindako  
programazioa  
> Ekipo osoa  
instalatuko dizugu

Eguzki auzoa 5, behea. Antzuola  
Tel.: 943 76 65 13.  
Faxa: 943 76 65 14



BERGARARRAK MUNDUAN

IÑIGO LIZARRALDE

26 URTE / INGENIARI TEKNIKO / PALENTZIA

“Pertsona bezala irekiagoa izaten erakutsi dit Bergaratik kanpo bizitzeak”

AINTZANE IRIZAR

**P**alentzian bizi da Iñigo izazko urritik. Baina, askoz lehenago, 18 urte zituela, hain zuzen ere, laga zuen Bergara.

Iruñera joan zen lehendabizi, Nekazal Ingeniaritza Teknikoa ikastera. Handik Lleida joan zen ikasketekin jarraitzera; Baso Ingeniaritza ikasi zuen han. Eta orain, Palentzian bizi da; doktorego tesia egiteko beka bat lortu, eta ikerketa lanetan dihardu Palentzian.

Gustora dago Palentzian, eta denbora gutxi daraman arren han bizitzen, erraz moldatu ei da hango bizimodura: “ohituta nago kanpoan bizitzera, eta ez zait kostatu hona moldatzea”. Iñigoren esanetan, ezberdintasun nabariena ordutegia da: “izan ere, hemen dena egiten dute bizpahiru ordu beranduago: adibidez, oso normala da

hemen gaueko hamaiketan afaltzea”.

Ondo moldatu den arren, badago zerbait pixka bat harritu duena: “Valladolid oso gertu dagoenez, harekiko Palentziak daukan dependentsia handia da; Valladoliden zentralizatzen dira gauza asko:

“Palentziatik gehien gustatzen zaidana da, hiria izanda ere, oso lasaia dela”

kultura, administrazioa...”

Hiria izanda ere, oso lasaia ei da Palentzia, eta horixe da Iñigori gehien gustatzen zaiona. Palentziarrak, berriz, oso apalak, umilak.

Bergaratik kanpo bizitzeak, pertsona moduan irekiagoa izatea ekarri ei dio Iñigori: “kultura ezberdinak ezagutzea oso aberasgarria da, irekiagoa izaten ikasi dut. Inkultura, bidaiatuz sendatzen da”.

Bergarako poteoa, lagunartean egotea eta familia faltan botatzen ditu Iñigok.

“Oraindik hilabete batzuk besterik ez daramatzat hemen bizitzen, eta ez dut bisita askorik izan, baina espero dut laster etorriko zaizkidala kuadrilakoak”, diosku.

Hiru urterako lana dauka Palentzian. Etorkizunaren gainean galdetuta, zera erantzun digu: “gero, gerokoak”.



MINGAINARITIRAKA



Mari Millet

GORLAKO KANTINAKO

Caracasen jaio zan Mari; handik Bartzelonara jun zan eta 20 urte zeuzkala etorri zan hona. Baiña euskalduntzat dauka bere burua. Iazko urritik kantinian arduria dauka.

Noiz hartu ziñuan Gorlako kantinia? Badira lau bat hillabete; iazko urrian hartu neban.

Zelatan animatu ziñan? Ebakuntza bat egin eta lanik egitteke egon nitzan denpora askuan; baiña ez nenguan gustora, eta azkenian, ingurukuek animatuta, kantinia hartzia erabaki neban.

Ez da egunero zabalik egoten, ezta? Neguan ez; orain asteburutan bakarrik egoten da zabalik, baiña udaberriaren egunero zabalduko dogu.

Zer gustatzen jatzu gehixen zure lanian? Jendiarekiko harremana.

Eta gutxien? Egixa esan, gustora nago lanarekin.

Zela definituko ziñuke zeure burua? Oso lotsatixa naiz, baiña era berian, irekixa naiz.

Bestiengan, zer da gehixen apreziatzen dozuna? Zintzotasuna; jendia zelakua danagaittik baloratzen dot, eta ez daukenagaittik.

Zure bikotekidiari zer ez zontsake sekula barkatuko? Gizurra esatia; nahixago dot min emungo dosten egi bat gizur bat baiño.

Zer aldatuko ziñuke zure bizitzan? Nere haurtzarua.

Eta zer ez ziñuke sekula aldatuko? Nere semiak.

Asteburu baterako plan ideala? Nere familixiarekin norabait bazkaltzera jutia, eurak gertu dauzkatela pasatzia asteburua.

Amets bat? Bakian hiltzia.

AINTZANE IRIZAR

NIREBIDAIAHURA / Nuria Barrero

MEXIKO / 2001eko abuztu

**M**exikora bidaiatzeko aitzakia bagenuen; itsasoaz bestalde bi lagun izateak merezi zuen sosak gatatatu, eta bide batez, beste paraje horiek ezagutzea. Volkswagen furgoneta zahar batean desertu gora eta oihean behera ibili ginen sei lagun hilabete eta erdiz. Furgoneta hau izan zen gure ibilgailua egin genituen 8.000 bat kilometroetan. Zenbaitetan lo egiteko lekua ere izan zen furgoneta edozein bide edo hiri bazterretan; baita jantokia ere, sabelak hala eskatzen zuenean.

Mexikon nondik norakoa pentsatuta bageneukan ere, egunero aldatzen genituen planak; batzuetan, geunden tokian gustora geundelako, beste batzuetan furgonetaren mekanika kapritxoak zirela medio, edo nekazariak beraien lurrak defendatzeko 24 orduz bideak mozten zituztelako. Horrelakoa da Mexiko, inoiz ezin da jakin zer ekarriko duen hurrengo egunak.

Paraje ezberdin asko ikusi genituen; batzuk aipatzearen, Mexiko D.F. kontrolik gabeko hiri erraldoia, bere kutsadura, trafikoaren zoramena, zarata eta jendetza izugarriarekin, zerbait berezia baduena. San Luis Potosiko basamortua, garai bateko mehatzetako aberastasunetik ia hutsik geldituzera pasatutako parajeak. Bestalde, Chiapas: oihean eta mendi artean galtzen diren herrixka zapatistatoko batean ikusitako bizimodu gogor eta umila; nekazariari lur zati bat landu ahal izateak ematen dien bizipoza eta borrokarako gogo; edonon dauden merkatuetako kolore eta usainen nahastea; negarra ateratzearainoko janari pikanteak, hizkuntza, ohiturak...

Gure nahia jende xehearekin nahastea izan zen, baina guri ez gustatuta ere, gu beti izango gara gringoak Mexikon.



“Furgoneta baten 8.000 kilometro egin genituen Mexikon”

“Gure nahia bertako jende xehearekin nahastea izan zen”

AINTZANE IRIZAR




Real del Catorce herrixkako irudi bat.

**OGIZUN**  
koop. elk.  
okindegia



San Pedro 21  
BERGARA  
943 76 20 49

Zubillaga 10  
ONATI  
943 78 24 13



**JAUJA  
KIROLAK**

Irizar 2. BERGARA  
943 76 14 95





Herriko eskalatazaileak batez ere negu partean ibiltzen dira Labegaraietako rokodromoan.

## ESKALADA

# Herriko eskalatazaileek hobekuntza lanak egin dituzte rokodromoan

Harmailetako zati batean plataforma jarri dute eskalatazaileen segurtasuna bermatzeko

### EDU MENDIBIL

**Udalari eskaera egin ondoren, herriko eskalatazaileek rokodromoan hobekuntza lanak egin dituzte azken asteotan. Hantxe entrenatzen diren eskalatazaileen segurtasuna bermatzea izan da lanen helburua.**

Egurrezko plataforma batekin harmailen zati bat estali dute eta, ondorioz, espazio handiagoa izango dute eskalatazaileek. Era berean, erabiltzen duten paneletako

bat (hiru dira rokodromoan) aldatu egin dute, nahiko hondatuta zegoelako eta, azkenik, koltxoneta berriak jarri dituzte panelen azpian, zazpi guztira. Egingandako lanei esker, erorikoak saihestu nahi dira aurrerantzean, lehen, harmailetara jausteko arriskua zegoelako. Orain sokazko hesi bat jarri dute platformaren eta harmailen artean. Eskalatazaileek beraiek egin dituzte lanok, eta Udalak ordaindu ditu. Aurrekontua 7.212 euro ingurukoa izan da (1.200.000 pezeta).

### HOTZA NEGUAN

Herriko 30 bat eskalatazaile aritzen dira rokodromoan, neguan batez ere. Hala ere, ez dago berogailurik eta hotz handia jasan behar izaten dute. Gorka Ortega berrikuntza lanetan ibilitakoa da bere lagunekin batera. Bere hitzetan, "egindako lanak hoberako izan dira, baina etorkizunean lokal itxi bat izatea gustatuko litzaguke. Batez ere eguraldi txarra egiten duenean erabiltzen dugu rokodromoa, eta neguan hotz handia izaten da Kiroldegian".

## TENIS ETA ESKU PILOTA

### Tenis txapelketa abian da eta esku pilotakoa astebukaeratik aurrera jokatu da

Astebukaeran tenis txapelketako lehenbiziko partiduak izan genituen Kiroldegian. Hala ere, euriaren erruz, hainbat partidu bertan behera geratu zen. Txapelketa Debagoieneko zirkuiturako puntuagarria izango da eta 24 jokalaririk izango dira lehen, 6 multzotan banatuta. Bergarako partaidetzari dagokionez, herriko 11 lagun arituko dira: Eneko Ugalde, Jorge Aranes, Joseba Azkargorta, Juan Luis Etxaniz, Nestor Iñurrieta, Iñaki Akizu, Roberto Limeres, Fernando Agirrebeña, Jose Jabier Agirre, Jose Ignacio Berraondo eta Jaio Manzanedo. Zapatuan eta domekan, goiz eta arratsaldean, partiduak izango dira Kiroldegiko tenis pistean.

Bestalde, lau terdiko esku pilota txapelketa astebukaeran hasi da. Oraingoan, bost bikotek eman dute izena: Oñatiko Isasti anaiek, Aretxabaletako Asier Errastik eta Gorka Madinabeitia eta Joseba Larrañaga-Igor Oruesagasti, Ibon Larrañaga-Unai Urbina eta Mikel Iturria-Ander Sesma herriko bikoteek. Partiduak Udako Pilotalekuan eta Angiozarko Arbiaska pilotalekuan jokatu da.

## PILOTA

### Iker Muruamendiarazek galdu bigarren mailako binakako txapelketan

Iker Muruamendiarazek eta Tabernak 10-22 emaitzarekin galdu zuten Ayo eta Gorriti bikotearen aurka, zapatuan Uhart-Araki-ilen, bigarren mailako binakako txapelketaren barruan. Muruamendiaraz eta Taberna txapelketa eskuratzeko favoritoen artean genuen, baina zapatuan ez zuten partidu onik egin. Iker eta Taberna 3-0 irabazten hasi ziren baina hortik aurrera Ayo eta Gorriti izan ziren nagusi markagailuan. Ikerren hitzetan, "ezin izan genuen gure joko egitearik izan. Atzealdeko koadroetan erabaki ziren tanto gehienak eta nik ere ez nuen egun ona izan. Egia esateko, txapelketa ona egiteko gogoz ginen, baina nahi baino lehenago kanporatu gaituzte". Bigarren mailako binakako txapelketa astebukaeran hasi zen, zortzi bikoteren partaidetzarekin. Aspeko bi bikoteak txapelketatik kanpo geratu dira, Badiola III.a.k eta Bernalek ere galdu egin baitzuten Najeran, Garcia I.a eta Gabarri II.aren aurka (10-22).



Iker Muruamendiaraz.

# Igeri elkarteko infantil neskak bikain Euskadiko txapelketan

### E.M.

**Bergara Igeri Elkarteko infantil mailako neskek Igerilari Osoaren Euskadiko Txapelketan hartu zuten parte astebukaeran Gasteizen, Mendizorroztan. 4x100 estiloko proban bigarrenak izan genituen.**

Bergara Igeri Elkartea ordezkatzuz, Neritzel Albisua, Maria Galarraga, Elixabeth Laskurain, Goiatz Perez, eta Maite Urzelai izan ziren Gasteizen. Igerilari Osoaren Euskadiko Txapelketan 53 neska izan ziren lehen. Ber-

garako onena Neritzel Albisua izan genuen, 13. postuan. Elixabeth Laskurain 18.a izan zen, Maite Urzelai 20. postuan sailkatu zen, Goiatz Perezek 23. postua lortu zuen eta Maria Galarraga 28.a izan zen. Guztiek estilo bakoi-tzeko 100 metroko probak izan zituzten, eta lau probetan izandako denborak kontuan hartu zituzten sailkapenerako.

### ERRELEBOTAN FIN

Banakako probaz gain, errelebo probak ere izan ziren Mendizorroztan. Neritzel Albisua, Elixabeth Laskurain, Goiatz Perez

eta Maite Urzelai osatu zuten Bergarako laukotea. 4x100 metro estiloko proban bigarren postua eskuratu zuten, 11 talde izan zirelarik elkarren aurka. Bestalde, 4x200 metro libreetan ez ziren horren ondo ibili: proban parte hartu zuten 10 taldeetatik bergararrak 7. postuan helmugaratu ziren. Amaia Andueza Bergara Igeri Elkarteko entrenatzailearen arabera, "beste kompetizioetan lortutako denboren arabera, 4x200 metroko erreleboan aurrerago egotea espero genuen. Hala ere, oso pozik nago Gasteizen lortutako emaitzekin".



Infantil neskak bigarren izan ziren 4x100 estiloko proban.

**Babeslea**

SPORTLAND  
FORUM SHOPS

www.forumsport.com

KIROLA ZEURE ESKURA

Garibai Etorbidea, 2-6. Arrasate

## LABEGARAIETAKO FUTBITOTXAPELKETA

### EMAITZAK

#### A MULTZOA

Amilox-Bar Ganbara	5-4
Mongatxurak-Bar Ugarte	7-7
Bicip. Igartua-Kanpazar	5-5

#### B MULTZOA

Artekale pizzeria-Etengabe	12-2
Txipiron-Etengabe	10-0
Artekale pizzeria-Amoskibar	4-13
Aterpe-Bar Canalejas	2-5
Bar Bedarreta-THT	6-1
Irubide-Vacalouras	2-4

#### C MULTZOA

Bayer-Errotagain	3-3
Pagomendi-Artusamak	3-3
Timofonika-Patxaran	5-3

### SAILKAPENA

#### A MULTZOA

	P	J
1. A Ze Flaxa	40	17
2. Bar Ugarte	38	17
3. Mongatxurak	37	17
4. Eri	28	17
5. Agirrebeña	27	16
6. Kanpazar	21	17
7. Komando Piperrak	20	17
8. Bar Ganbara	13	17
9. Biciprecisión Igartua	8	17
10. Amilox	8	17
11. Torrekua	0	0

#### B MULTZOA

	P	J
1. Bar Bedarreta	46	16
2. Bar Canalejas	35	16
3. Amoskibar	24	16
4. Aterpe	24	16
5. Vacalouras	22	16
6. Txipiron	20	16
7. THT	20	16
8. Irubide	19	16
9. Artekale pizzeria	15	16
10. Etengabe	-3	16

#### C MULTZOA

	P	J
1. Errotagain	40	14
2. Artusamak	29	14
3. Bayer	25	14
4. Dedo Pafarru	25	14
5. Argandolas	25	14
6. Pagomendi	19	14
7. Ortzí	10	14
8. Timofonika	6	14
9. Patxaran	6	14
10. Bildurbarek	0	0

### PARTIDUAK

#### ZAPATUAN, BARRUAN

9:30: Amilox-K. Piperrak. Dedo Pafarru
10:30: Dedo Pafarru-Patxaran. Artusamak
11:30: Bayer-Artusamak. Eri
12:30: Mongatxurak-Eri. Bayer

#### DOMEKAN, KANPOAN

09:30: Txipiron-Vacalouras. Bar Ugarte
10:30: Bar Ugarte-A Ze Flaxa. Txipiron
11:30: Etengabe-Bar Bedarreta. Agirrebeña
12:30: Agirrebeña-Bicip. Igartua. Bedarreta

#### DOMEKAN, BARRUAN

16:00: Argandolas-Errotagain. Aterpe
17:00: Aterpe-Irubide. Timofonika
18:00: Timofonika-Pagomendi. Artekale
19:00: THT-Artekale pizzeria. Pagomendi
20:00: Amoskibar-Bar Canalejas. THT

### ARGI IBILI!

#### AGIRREBEÑA TALDEA BERRIZ TXAPELKETAN

Antolaketa batzordea eta Agirrebeña taldearen arteko gaizki ulertu bategatik, txapelketatik kanporatu zuten Agirrebeña taldea aurreko jardunaldian. Auzia konponduta, Agirrebeñak berriz ekingo dio txapelketari. Domekan, eguerdiko 12:30ean, Biciprecisión Igartua taldearen aurka jokatuko dute.

#### KANPORATUTAKO TALDEETAKO JOKALARIEK EZIN IZANGO DUTE JOKATU

Antolaketa batzordeak jakinarazi duenez, txapelketatik kanporatu zituzten Bildurbarek eta Torrekua taldeetako jokalariek ezin izango dute aurtengo ekitaldian berriz jokatzetik izan. Hemendik liga eta kopa txapelketa amaitu bitartean taldeek ez dute fitxaketa berririk egiteko aukerarik izango. Kopa txapelketa martxoan jarriko da abian.

### GORA ETA BEHERA

#### TXIPIRON ETA AMILOTX

Txipiron taldeak gora egin du B multzoko sailkapenean. Seigarrenak dira dagoeneko. Azken jardunaldian erraz irabazi zioten Etengabe taldeari (10-0). A multzoan berriz, Amilox Bar Ganbara taldeari nagusitu zitzaion (5-4).

#### ETENGABE ETA PATXARAN

Etengabe taldeok ez ziren gauza izan azken jardunaldian golik egiteko. Golik sartu ez zuen talde bakarira izan genuen. Patxaran taldeak, berriz, C multzoko azken postuan darrai Timofonikaren aurka galdu ostean.

## GAINBEGIRADA

### KARATE

#### Dani Muñoz hirugarren izan zen astebukaeran jokatutako Euskadiko Karate Txapelketan

Begarako Shotokan taldean ari den Dani Muñoz bizkaitarra hirugarren sailkatu zen astebukaeran Irunen jokatutako Euskadiko Karate Txapelketan. Zallakoa izatez, Dani Muñoz aurtengo denboraldian hasi zen Shotokan taldean, Josean Iñarraren aginduetara.

### GIMNASIA ERRITMIKOA

#### Eskolarteko Gipuzkoako txapelketa jokatuko da domekan Labegaraietako Kiroldegian

Domekan, 10:30etik aurrera, Gipuzkoako B mailako eskolarteko txapelketa jokatuko da Kiroldegian. Alebin mailan Saioa Ugarteburu eta Oihane Agirre, infantiletan Eider Carrasco eta kadete mailan Maialen Toledo, Iraitz Gastiain eta Uxue Arregi lehiatuko dira banaka.

### FUTBOLA

#### Bergara-Mondragon lehen erregionaleko derbia zapatuan Ipintzako futbol zelaian

Zapatuan, lehen erregional mailako Bergara-Mondragon futbol partidua izango da 16:15ean Ipintzan. Karlos Lasak zuzentzen duen taldeak Zumaian galdu zuen azken jardunaldia, 1-0. Bergararrak sailkapeneko 12. tokian dira, eta arrasatearrak seigarren daude.

### PILOTA

#### Infantil mailako bikoteak galdu egin zuen Gipuzkoako txapelketako final laurdenetan

Jokin Oregi eta Jon Larrañaga infantil mailako bikoteak 12-22 galdu zuen Bidaniako bikotearen aurka, Gipuzkoako txapelketako final laurdenetan. Bergararrek gaur jokatuko dute itzulerako partidua Bidanian, eta ezinbestekoa dute 11 tantoren aldearekin irabaztea.

## KARTELDEGIA

### FUTBOLA

<b>Bergara-Hondarribia</b> Infantilak. Zapatua. 10:30. Ipintza
<b>Bergara-Ikasberri</b> Bigarren mailako kadeteak. Zapatua. 12:00. Ipintza
<b>Bergara-Mondragon</b> Lehen erregionala. Zapatua. 16:15. Ipintza.
<b>Bergara-San Marcial</b> Ohorezko mailako gazteak. Zapatua. 18:15. Ipintza.

### ESKUBALOIA

**Bergara-Egia**  
Kadete mutilak. Zapatua. 17:45. Kiroldegia

### SASKIBALOIA

<b>Bergara-Oñati</b> Kadete mutilak. Zapatua. 12:15. Kiroldegia
<b>Bergara-Intxaurrondo</b> Senior mutilak. Zapatua. 16:00. Kiroldegia.
<b>Bergara-Tolosa</b> Gazte mutilak. Domeka. 12:15. M.Lagundia.

## EMAITZAK

### FUTBOLA

<b>Bergara 1 Hernani 1</b> (Preferente maila)
<b>Zumaia 0 Bergara 0</b> (Lehen erregionala)
<b>Euskalduna 0 Bergara 2</b> (Ohorezko m., gazteak)
<b>Bergara 0 Arrasate 3</b> (Ohorezko m. kadeteak)
<b>Sto. Tomas Lizeoa 6 Bergara 2</b> (Infantilak)

### ESKUBALOIA

<b>Beasain 15 Bergara 24</b> (Gazte mutilak)
<b>Donibane Lezo 13 Bergara 24</b> (Kadete mutilak)

### SASKIBALOIA

<b>Kostkas 64 Bergara 68</b> (Senior mutilak)
<b>Beasain 57 Bergara 51</b> (Gazte mutilak)
<b>Askatuak 97 Bergara 22</b> (Kadete mutilak)

### PILOTA

<b>Bergara 12 Bidania 22</b> (Infantilak)
<b>Aretxabaleta 22 Bergara 6</b> (Gazteak)
<b>Deba 6 Bergara 22</b> (Seniorrak)

## JOKOZKANPO

### David Urbina

SASKIBALOI JOKALARIA

**Senior mutilen taldeak igoera lortzeko aukera dauka. Jokatzeaz gain, taldeko entrenatzailea da David Urbina (26 urte).**

#### Zer-nolako aukerak dituzue igoera lortzeko?

Nik uste dut lehen maila probintzialera igotzea lortuko dugula. Igoera fasean ari garen zortzi taldeetatik hiru igoko dira, eta horien artean gu izatea espero dut. Igoera fasean jokatutako bost partiduetatik bi galdu ditugu, eta oraingoz behintzat bigarren gaude, Alda-petaren atzetik.


#### Jokalaria eta entrenatzailea zara. Zer moduz?

Bi gauza ondo egitea nekeza da, baina zorionez, jokalariek ere laguntzen naute eta ondo moldatzen naiz. Giro ona daukagu taldean. **Taldearen alde ona eta alde txarra?**

Taldeak maila ona du eta Alfonso Romera, Ugutz Nasauri eta Mikel Etxeberria itzultzean hobera egin dugu. Hala ere, bigarren maila motelagoa izango zela uste genuen. Txarrena? Lesioekin ez dugula zortetik. Azken partidura zortzi lagun joan ginen.

#### Harrobirik badago?

Horretan ari gara, harrobia bultzatu nahirik. Infantil mailako taldea esate baterako oso ondo dabil.



## JOXAN ARRAINDEGIA



Ibargarai 24. Bergara. Tf. 943 76 70 29

## BERGARA MARMOLERIA PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Urarte 8 BERGARA  
943 76 11 99 / 14 47.  
Faxa: 943 76 04 77



## MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tel. 943 71 24 25  
BERGARA


## BERGARAN BULEGO BERRIA



BERGARA  
Ibargarai 3.  
943 76 97 97

LEGAZPI  
Santikutz 8.  
943 73 05 25

**10 URTEKO  
ESPERIENTZIA!**



TAUN TAUN

Irudian, Taun Taunek egingo duen atzerki lanaren une bat.

**ANTZERKIA/** Joan Brossaren poesia bisual eta objektuala oinarri du antzerki lanak

## Taun Taun-en Kont Arte lana gaur, Novedades aretoan

MONIKA BELASTEGI

**Bergarako antzerki taldeak ikuskizun berria egingo du gaur, 22:30ean, Novedades aretoan. Joan Brossa artista kataluniarraren unibertso poetikoan murgildu da, oraingoan, Taun Taun eta horren fruitu den Kont Arte eskainiko du.**

Taun Taun Teatroak Joan Brossa artista kataluniarraren unibertso poetikoan murgildu eta antzerki lan berria aurkeztuko du gaur iluntzean Novedades aretoan.

Itsaso Azkaratek eta Karlos Odriozolak sortu eta zuzendu dute *Kont Arte*. Ikuskizun oso bisuala da, eta aurrez esan bezala, Joan Brossaren unibertso poetikoan –poesia diskurtsiboan, poesia objektualean eta poesia eszenikoan– oinarritu dira lan berri hori sortzeko.

Argiak, itzalak, magia, umorea, poesia eta objektuak nahasten dituzte Taun Taun antzerki taldeko kideek antzerki une bat, une iragankor bat sortzeko. *Kont Arte* ez da ohiko bideetatik doan ikuskizun arrunta, zeren Joan Brossarengan oinarritutako muntaia batek ezin du bizitza edota artearen ezein arlorik ere bazterrean utzi.

### BEGIRADA IRONIKO POETIKOA

Seguraski, Miro-rekin izandako kidesunak utzi zion oinarritzko koloreekiko zaletasuna, eta joera horrek isla garbia du Bergarako taldearen ikuskizunean. Baina muntaia honetan artistaren beste zenbait aztarna agertzen dira, berak erabilitako aulki kulunkaria edota eszenatokiko oihalei emandako garrantzia kasu, eta, batez ere, objektuen gaineko begirada erdi ironiko erdi poetikoa.

Brossaren *Streeptease-Teatro Irregularra* oinarri izan da *Kont*

*Arteren* egitura dramatikoak sortzeko. Hantxe, Brossaren poesia bisualaren eta objektualaren hainbat elementu interesgarri tartekatu dituzte.

Itsaso Azkarate eta Karlos Odriozola dira arestian aipatu bezala, *Kont Arte* lanaren egile eta zuzendariak. Horrez gain, lana taularatzeko lanean Iñaki Mata ere ari da buru belarri Azkarate eta Odriozolarekin batera.

Argi diseinoari dagokionez, Santi Ezkurrarena da, eta musika, berriz, Koldo Lizarralderena.

## XX. mendeko berritzailea

Joan Brossa (Bartzelona 1919-1998) artista oparoa izan zen, eta adituaren ustez, XX. mendearen bigarren erdiko poesia, antzerki eta artearen berritzaile handia.

Izaera errenazentistako dramaturgo eta poeta hau Kataluniako kultur eragile nagusietariko bat izan zen, eta, literaturatik abiatuta, arte plastikoetan, antzerki-gintzan eta zinemagintzan aritu zen. Adierazpide berrien bila egin zuen ikerketa zintzoak eta sakonak eragin nabaria izan zuen garaiko abangoardisten artean eta bera baino artista gazteago askorengan.

“Ematen du obra bakoitza hain zehatz hausnartuta dagoela non ez den beharrezkoa aldaketarik gehitzea behin hasita dagoenean”. Brossaren berba horiek pantaila batean proiektaturik ikus daitezke Taun Taun antzerki taldearen *Kont Arte* ikuskizunean.

## Herriko hainbat talde Euskal Kantu Txapelketan arituko da

MONIKA BELASTEGI

Herriko hainbat taldek Euskal Kantuzaleen Elkarteak antolatutako Euskal Kantu Txapelketan hartuko du parte. Txapelketak hiru kanporaketa izango ditu, eta finala Bergaran jokatu dute maiatzean.

Euskal Kantu Txapelketan ere izango dira herriko ordezkariak. Batetik, Musika Eskolako hainbat kidek hartuko dute parte: bi bakarlari, bikote bat eta hamar lagunekoko talde bat izango dira txapelketan; eta horietako bakoitzak, instrumentuen laguntza izango du. Hala ere, izena emateko epea amaitu gabe dago, eta baliteke beste inork ematea.

Txapelketa hori lau ekitalditan gauzatuko da: apirilaren 6an Andoaino kiroldegian; apirilaren 13an Ibarako kiroldegian; eta apirilaren 19an Beasaingo Usurbe antzokian. Hiru ekitaldi horietan sailkatzen diren talde edo

bakarlariek apirilaren 27an Bergarako Novedades aretoan egingo den finalean parte hartzeko aukera izango dute.

### EUSKAL HERRIKO JAIALDIRA

Kategoria bakoitzak, hau da, bakarlari, bikote edo taldeak bi kanta abestu beharko ditu kanporaketan. Finalean, aldiz bakarlarra. Kanta horiek norberak aukeratutakoak izango dira, eta estilo guztiak onartuko dituzte.

Hiru partaide hautatuko dituzte Euskal Herriko jaialdira joateko Gipuzkoako ordezkari gisa. Horietako bat entzuleen saria jasotzen duena izango da, baldin eta lehenengo bosten artean sartzen bada epaimahaiaren puntuazioan.

Sariei dagokionez, kategoria guztietan lehen eta bigarren sailkatzen direnak jasoko dute saria. Bestalde, sari bereziak egongo dira “a capella” abesten dutenendako eta doinu edo hitzak sortu dituztenendako.

## KULTURAPILULAK

### Abdon Juaristi pintura lehiaketako bosgarren aldia martxan dago Gure Ametsaren eskutik

Lehiaketaren helburua da Mendekoste jaietan egingo diren zezenketetarako kartel iragarlea sortzea, eta nahi duten artista guztiak parte hartu ahal izango dute. Kartelen gaia, zezenak Bergaran izango da eta estiloari eta teknikari dagokionez, librea. Lanak Kultura Etxean aurkeztu beharko dira, astelehenik egubakoitzera, apirilaren 12tik 18ra bitartean, biak barne, 16:00etatik 21:00etara.



### Amodiozko gutunen sari banaketa

Joan den egunean, San Balentin eguna, banatu zituzten Amodiozko Gutunen X. Berrigara lehiaketako sariak. Ekitaldia Kartzela Zaharrean izan zen, eta jende ugari hurbildu zen bertara. Irabazleak ere, noski, hantxe izan ziren, eta bakoitzak, zego-kion saria jasozuen: Bertol Arrieta zarauztarrak lehen saria jaso zuen, Irati Hartsuaga tolosarrak bigarrena, Iraitz Agirre arrasatearrak Debagoineko gutun onenaren saria jaso zuen, Roberto Izagirrek Bergarako onenarena, eta Maite Toledok, berriz, Gazte saria. Irudian bost sarituak./M.B.

E, TXO!

**SAGARDOTEGIRA  
BAZKALTZERA**

Bergarako gaztetxeok sagardotegira joateko irteera antolatu dute datorren martxoaren 9rako. Joan nahi dutenek Arrano tabernan edo gaztetxean eman beharko dute izena. Baina adi egon, izan ere, gaur bertan, egubakoitza, duzue izena emateko azken eguna!

**HAINBAT EKINTZA  
GAZTETXEAN**

Bihar, zapatua, kontzertua izango dugu gaztetxean, 22:30ean. Bi talde arituko dira: Tolosako Humus eta Hernaniko Melancholic Demise.

Datorren eguaztenean, berriz, otsailaren 27an, kafe tertulia egingo dute gaztetxean; arratsaldeko zazpi eta erdietan izango da hori, eta munduko gazteak izango dituzte hizpide.

**TXORIMALO LEHIAKETA**

Urtero moduan, Erramu Zapatu egunerako, martxoaren 23rako, antolatu du Jardunek txorimalo lehiaketa. Oraindik badaukazue zuen txorimaloa prestatzeko nahiko denbora, baina hobe izaten da garaiz ibiltzea. Bakarka nahiz taldeka parte har dezakezue, eta hiru taldetan antolatuko dute lehiaketa: 14 urtetik beherakoak, 15 eta 60 urte bitartekoak eta 60 urtetik gorakoak. Animatu eta hasi lanean, lagunok!

**ESKULANAK  
KUDRILLATEGIREKIN**

Astero moduan, 15:30ean elkartuko dira Kuadrillategikoak Udal Euskaltegiaren egoitzan. Eskulanak egingo dituzte; ispiluak margotzeko teknika ezagutzeko aukera izango dute.

**GUREGAIK/ FILMAK GAZTETXEAN**

**Eguazten gauero film emanaldia gaztetxean**

AINZANE IRIZAR

**Duela urte eta erdi hasi ziren gaztetxeok filmak eskaintzen eguaztenean. Gero, arazo tekniko batzuk zirela-eta, bertan behera laga zituzten emanaldiak, eta orain, berriro hasi dira filmak eskaintzen.**

Duela urte eta erdi hasi ziren gaztetxean film emanaldiak egingen. Hilabete batzuk filmik eskaini barik pasatu eta gero, berriro ekin diete emanaldiei. Orain, gainera, astean bi bider eskainiko dute film bakoitza: eguaztenean, gaueko hamarretan izango da lehenengo emanaldia. Bigarrena, berriz, domekan, ordu berean. Datorren astean, hala ere,


martitzenean emango dute filma; *Chacal* eskainiko dute oraingoan.

**GAZTE ZINEMAZALEEN EKIMENEZ**

Zinema gustuko duen gazte talde bat elkartu, eta ekimen horri heldu zion. Gazteendako lokala bazuten, eta proiektore bat besterik ez zitzaizkien falta. Hori ere lortu zuten; hortaz, ez zuten aitzakiarik.

Hiru lagun ari dira emanaldi horiek antolatzen; euren esanetan, "ez da erraza izaten, baina, denek gustuko izan daitezkeen filmak aukeratzen saiatzen gara".

Gaztetxeo areto nagusian izaten dira emanaldiak, eta doakoak dira. Emanaldi horiekin, gazte taldearen helburua da hainbat film ezberdin ikusteko aukera eskaintzea jendeari.



AINZANE IRIZAR  
Gaztetxeo areto nagusian izaten dira emanaldiak eguazten eta domeka gauero.

**LOTSABARIK/ Naikari Medina**

**"Pazientzia txikia eta jenio bizia daukat"**

AINZANE IRIZAR

**Pazientziarik ez daukala eta jenio bizia daukala kontatu digu Naikari, baina gurera, behintzat, neska irribarretsu eta atsegina etorri da. 17 urte ditu, eta dagoeneko erabaki du Enpresa ikasketak egitea.**

- **Txikitan, zer izan nahi zenuen?**  
Ile apaintzaile; panpinekin praktikatzeko nuen, denetik egingen nien ilean.
- **Hemendik 20 urtera zelan ikusten duzu zure burua?**  
Umeekin, ezkondu eta lan batekin; Enpresa ikasketak egiteko asmoa daukat, eta espero dut


- horrekin lotutako lanen bat topatuko dudala.
- **Gurasoek zer errepikatzen dizute behin eta berriz?**  
Ez lagatzeko gauzak azkenean momenturako, batez ere, ikasketei dagokienez.
- **Gurasoen kontrolpetik ihes egiteko taktika bat.**  
Nik denetik probatu dut, eta ez daukat funtzionatzen didan taktikarik.
- **Bizitzan zeri ematen diozu lehentasuna?**  
Norberaren buruarekin ondo sentitzeari; behin hori lortuta, dena da errazagoa.
- **Zure bertute bat?**  
Lagunen laguna naizela eta entzuten dakidala.

- **Eta hutsune bat?**  
Pazientzia txikia daukat, eta jenio bizikoa naiz.
- **Zerk amorratzen zaitu?**  
Gezurrek; gauzak aurpegira esatearen aldekoa naiz.
- **Zure gorputzeko atalik gustukoena?**  
Bada, ez dakit zer esan.
- **Jendeari, zeri botatzen diozu begia lehenengo?**  
Aurpegiari orokorrean, eta, batez ere, begiei.
- **Zer egiten duzu seduzitzeko?**  
Ezer ere ez; ni naizen modukoa azaltzen naiz.
- **Fantasia sexual bat. Zeinek eta non?**  
Herri guztiak irakurtzen du BERRIGARA, e!



**ADINA:** 17 urte • **IKASKETAK:** Batxilergoa • **ZALETASUNAK:** Informatika eta zinema • **LIBURU BAT:** 'Como agua para chocolate', Laura Esquivelena • **FILM BAT:** 'Tras la línea enemiga' • **MUSIKA TALDEA:** Mikel Urdangarin • **KIROL TALDEA:** Athletic

**TIRABIRAKA/ Oihan Vega**



## ZAHARREN ETXETIK

# Martxan da dagoeneko Imersok edadetuei zuzendutako termalismo programa

EDU MENDIBIBIL

**O**tsailean abian jarri da Imersoren aurtengo termalismo programa. Bainuetxeetako egonaldiak harrera ona izan dute azken urteotan erretiratuen partetik. Atsedena hartu eta osasuna zaintzea izaten dira hara joateko arrazoi nagusiak.

Gipuzkoan, Zestoako bainuetxea da Imersoren programan sartzen den bakarra. Horrez gain, Euskal Herrian edo bertatik geru, Arnedillo (Errioxan), Fitero (Nafarroan) edo Alceda, Caldas de Besaya, Lierganes edo Puente-viesgoko (Kantabrian laurak) bainuetxeetan egonaldiak egiteko aukera dago. Egonaldi bakoitza 15 eguneko da, eta prezioari dagokionez, Zestoakoan esaterako, 374 euro ingurukoa da (62.228 pezeta). Imersok, hala ere, Estatu osoko bainuetxeetara joateko aukera eskaintzen du. Programan parte hartu ahal izateko gizarte segurantzako jubilazio edo ezintasun pentsioduna izatea beha-

rezkoa da, adina kontuan izan gabe. Alarguntasun pentsioa edo besteren bat jasoz gero, 60 urte beteta izatea eskatzen da.

Esan bezala, aurtengo egonaldiak abian dira dagoeneko. Abuztura bitartean egonaldiak egiteko izena emateko epea bukatu bada ere, irailetik abendura bitartean joan nahi izanez gero maiatzaren 16ra arte egongo da eskakizuna egiteko aukera. Interesatuak Udaleko Ongizate Zerbitzura jo dezakete. Argibideak Udaletxean bertan (943 77 91 65) edo Imersoko zenbakian (901 10 98 99) jaso daitezke. Bainuetxeetara joan aurretik, medikuarekin zer-nolako tratamendu terapeutikoa jasotzea komeni den kontsultatzea gomendatzen da, izan ere, tratamendu termal ezberdinak eskaintzen baitira bainuetxeetan. Era berean, hainbat osasun arazo dituztenentzako ez dira batere gomendagarriak.

**HITZALDIA SAN JOXEPEN**

Bestalde, San Joxepe elkarteak hitzaldi sorta bat antolatu du. Datorren egunean, otsailak 28,



Bainuetxeetako egonaldiak harrera ona jaso dute azken urteotan erretiratuen partetik.

Xabier Ibarzabal medikuak "Baloreen krisialdia gaur egun eta proposamen berriak" izenburuko hitzaldia emango du zaha-

rren egoitzan, 17:30ean. Xabier Ibarzabal, Donostiako Ospitaleko bioteknika batzordeko kidea eta Matia Fundazioko etika aplika-

tuko batzordeko koordinatzailea da. San Joxepeko zuzendaritzak bazkide guztiei hitzaldira joateko gonbidapena egin nahi die.



**Mariaren Lagundia Ikastola**  
**MATRIKULAZIO EPEA:**  
**Otsailaren 18tik, martxoaren**  
**1era bitartean**







HAURTZAINDEGI, HAUR EZKUNTZA, LEHEN HEZKUNTZA, DBH  
ETA GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

MARIAREN LAGUNDIA IKASTOLA  
Espolola 1 Tfnoa.: 943 76 25 40-41. Faxa: 943 76 33 31  
e-mail: marilagikastola@euskalnet.net




Argazkiak eta diseinua URKAN

Hezkuntza eremu guztiak barne sartzen dituen heziketa integral, kristau eta kalitaztekoa

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR

Ze komentutan dago ezkerreko irudia eta ze lekutan eskumakoa?

BERGARAKO ZUHAITZAK

Gerezi ondoa

*Prunus avium*

MAITANE ARIZABAETA

A Itueran 30 metro har dezakeen enbor lodi eta azal grisaska duen hosto erorkorreko zuhaitza. Adarrak ia horizontalak ditu eta hostoak oboatu eta ertzean zerratuak dira, berde ilunak gainaldean eta iledunak azpialdean. Loreak hostoekin batera garatzen dira martxoaren amaieran eta gereziak maiatza eta uztaila bitartean heltzen dira. Azkar hazten da eta 100 urteko biziraupena du.

Gereziak estimazio handiko fruta izateaz gain, libragarriak dira eta digestioan laguntzen dute, eta marmeladak eta likoreak egiteko erabiltzen dira. Txortanak taninoak dituzte, eta infusio erara hartuta bronkitisa eta beharakoa sendatzeko erabiltzen dira. Aldi berean, gerezien zukuak burdina eta kaltzioa duenez, gaitz hepatikoei, digestioarenei zein animikoei aurre egiten die.

Gerezi ondoaren egurra gogorra eta astuna da, egitura finekoa, ebanisterian eta tornerian oso estimatua, erraz lantzen baita, nahiz eta okertzeko joera eduki.

Horrez gain, apaingarri gisa ere, balio handiko zuhaitza da.

*“Gerezi-zukuak gaitz hepatikoei, digestioarenei zein animikoei aurre egiten die”*



E.M.

GALDEDEBALDE

1. Hauetatik, zein da Ramon Etxaniz txistulariak asmatutako dantza?  
A/ Pujanaren dantza.  
B/ Berriotxoaren dantza.  
C/ Baso txoritxo.
2. Zein poetaren lanetan oinarritzen da Taun-Taun antzerki taldearen Kont Arte ikuskizuna?  
A/ Joan Miró.  
B/ Joan Brossa.  
C/ Pere Gimferrer.
3. Euskadiko Igerilari Osoaren txapelketan, zein izan zen Bergarako onena?  
A/ Neritzel Albusua.  
B/ Maite Urzelai.  
C/ Goiatz Pérez.



Super BMn emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

PILAR MUJIKARENtzat izan da 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Pilarri! Galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: Alexander Fleming eta penizilina / Galde debalde: 1-A, 2-C, 3-C.



BONOFOTOA .....

GALDE DEBALDE 1/ ..... 2/ ..... 3/ .....

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!

IZEN-DEITURAK .....

TELEFONOA .....

Pierres ardo beltza

Errioxako jatorrizko izendapena, 75 cl.

1,20 €

199 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



‘ELVI’ BENTRILOKUOA!

Larunbat honetan, arratsaldeko 5etan.

IKASTOLA BISITATU NAHI IZAN EZKERO

Arratsaldeko 4etatik 7etara zain izango gaituzu.



Mariaren Lagundia Ikastola





ELGETA  
**Maria Sarasua**  
Otsailaren 26an 5 urte.  
Urte askotarako!  
Eskolako lagunak.



BERGARA  
**Uxue Agiriano**  
Otsailaren 23an  
urtebete. Urte askotarako  
eta muxu bat! Etxekoak.



BERGARA  
**Mikel Edroso**  
Otsailaren 28an 5 urte.  
Urte askotarako!  
Gurasoak eta Maria.



BERGARA  
**Maialen Odriozola**  
Otsailaren 24an 10 urte.  
Urte askotarako!  
Gurasoak eta Nerea.



BERGARA  
**Juan Mari Igarza**  
Otsailaren 26an 41 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Nekane Ezkurra**  
Otsailaren 22an 7 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Pello Etxaniz**  
Otsailaren 26an 6 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Martxel Belategi**  
Otsailaren 27an  
urtebete. Urte askotara-  
ko! Etxekoak.



BERGARA  
**Nora Garcia**  
Otsailaren 22an  
urtebete. Urte askotara-  
ko! Gurasoak eta Omer.



BERGARA  
**Nere Zurro**  
Otsailaren 26an 6 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Maddi Elortza**  
Martxoaren 1ean 6 urte.  
Urte askotarako!  
Gurasoak eta Amaia.



BERGARA  
**Rosendo Perez**  
Otsailaren 19an 70 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Jon Ander Perez**  
Otsailaren 20an 4 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Aitzol Lenisoro**  
Otsailaren 15ean 8 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Ibon Labaien**  
Otsailaren 20an 12 urte.  
Zorionak! Gurasoak,  
Beñat eta Jokin.



BERGARA  
**Josefa Molina**  
Otsailaren 22an 80 urte.  
Urte askotarako!  
Familiakoak.



BERGARA  
**Ane Laskurain**  
Otsailaren 20an 3 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Nerea Azkarate**  
Otsailaren 24an 24 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Asier Lenisoro**  
Otsailaren 26an 27 urte.  
Urte askotarako!  
Koadrilakoak.



BERGARA  
**Asier Roman**  
Otsailaren 29an 2 urte.  
Zorionak! Iokin, Alazne,  
Amagoia eta etxeokak.



BERGARA  
**Amaia Etxeberriarteun**  
22an urteak. Zorionak!  
Asier eta etxeokak.



BERGARA  
**Irene Abad**  
Otsailaren 26an 21 urte.  
Urte askotarako!  
Gurasoak eta Nuria.



BERGARA  
**Ander Aristi**  
Otsailaren 28an 6 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Erroxe Etxabarri**  
Otsailaren 28an 5 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.

BABESLEA



Simon Arrieta plaza 2A behea ezkerre.  
Tf. 943 76 71 19

**Zorionak  
zUri...**

**KARPA ETA KALEFAKZIOA  
URTEBETETZE EGUNA OSPATZEKO**

**MENU AUKERA ZABALA  
ZURE AURREKONTURA EGOKITUTA**

**Adi!**

Argazkiak emateko lekuak:  
**Bergara:** Berrigara, Irizar jauregia, Barrenkalea 33  
**Antzuola:** Udal Liburutegia, astelehenetan 17:00etatik 19:00etara  
**Elgeta:** Erosle-Baltxungo

**ARDATZA**  
Brikolajea

Ateak eta zokaloak	Koadroak markoan ipini
Horma-armairuak	Era guztietako moldurak
Sarrailak	Apalak
Heldulekuak	Kaxoiak

Masterreka, 4-behea. Bergara. 943 76 18 93

**Garnish**

**Bitxitegia**

San Pedro 12  
BERGARA  
943 76 03 57

**Jose M. Martin**

pinturak - paper pintatuak  
sintasola - moketak - gotilea  
pintura industrialia

Errekalde auzoa 5, 1.a  
ANTZUOLA  
Tf. 943 76 62 02 /  
666 517 295

**Aldoka  
Maldoka**

TABERNA

Kruz Gallastegi  
BERGARA

**SEGUROS LAGUN ARO  
ASEGURUAK**

**AGENTEA**

Ramon Maria Lili, 6-behea

20570 BERGARA (Gipuzkoa)

Telefonoak: 943 76 23 30 • 943 76 41 54

Faxa: 943 76 41 54

ORDUTEGIA: Astelehenetik ostiralera:

9.00-14.00 eta 15.30-19.30



**IRAEGI  
ASEGURUAK**



Urteaga 9  
BERGARA  
Tf. 943 76 18 45



# Gida 2002

## GIDA BEHARREAN BAZAUDE...

Denden, lantegien, elkarten eta zerbitzuen telefono eta helbideak, zure esku.


### ETORRI BILA

ARRASATE:  
Otalora Lizentziaduna 31  
BERGARA:  
Irizar jauregia. Barrenkalea 33  
ARETXABALETA:  
Durana 11- 2. solairua

### EDO BIDALIKO DIZUGU


Deitu 943 79 21 00ra eta  
postaz jasoko duzu.  
Gida bakoitza 3,6 €.

Arrasate  
Aretxabaleta  
Eskoriatza  
Leintz Gatzaga  
Aramaio



# Gida 2002

Bergara  
Antzuola  
Elgeta



Ba al dakizu zer dagoen  
begirada eder baten atzean?...  
Eta aurrean?

# Multi ESKAINTZAK

## MULTIOPTICAS

BONARDI  
AIREKO  
ARMAZOI  
BERRIAK

# 49

8.153 pta.



## MULTIOPTICAS



BERGARA  
Tel. 943 76 15 75



ARRASATE  
Tel. 943 79 29 95



ORDIZIA  
Tel. 943 88 99 88

# Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2002ko otsailaren 22a / 102. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com

## Datorren eguenean irekiko dute Amazoniaren gaineko erakusketa

AINTZANE IRIZAR

Otsailaren 28tik martxoaren 3ra egongo da zabalik Medicus Mundi elkartearen erakusketa. Olan etxeko aretoan izango da, eta Ekuadorreko Amazoniaren egoera tamalgarria ezagutaraztea da helburu nagusia. Gai horren gaineko hitzaldia ere eskainiko dute.

Datorren eguenean iritsiko da Antzuolara Medicus Mundi Gobernu Kanpoko Erakundearen erakusketa ibiltaria. *Yana Curi. Paradisu zauritua* izenburua dauka erakusketak. Udaleko Gizarte Ongizate Batzordeak antolatu du, eta Anelkarrek lagundu dio lan horretan. Olan etxeko aretoan egongo da erakusketa otsailaren 28tik martxoaren 3ra, eta honako orduetara izango du: 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

Eguenean bertan, 19:00etan, hitzaldia eskainiko du Olanen Imanol Apalategik, Gipuzkoako Medicus Mundiko presidentek.

### YANA CURÍ EDO PETROLIOA

Yana Curi urre beltza da, petrolio, amazoniarren hizkuntza. Petrolioak Ekuadorreko Amazoniari eta hango biztanleei ekarri dizkien kalteak laga nahi ditu agerian erakusketa honek. 43 argazki osatzen dute, eta testu labur bat izango du lagun argazki horietako bakoitzak.

1970eko hamarkadan petrolio putzuak aurkitu zituztenetik



Ekuadorreko Amazoniako petrolio putzu bat.

MEDICUS MUNDI

*Eguenean hitzaldia eskainiko du Medicus Mundiko kide Imanol Apalategik*

zeharo aldatu da Ekuadorreko Amazonia. Ondorio ugari ekarri dizkio aurkikuntzak amazoniaren osasunari eta ingurumena-

*Ekuadorreko Amazoniaren egoera ezagutaraztea da erakusketaren helburua*

ri. Ondorio horiek ezagutzeko azterketa egin zuen Medicus Mundik, eta erakusketa azterketaren emaitzen laburpen labur bat dela

*Amazoniako 43 argazki egongo dira ikusgai, bakoitza testu labur batek lagunduta*


esan daiteke. Izan ere, argazkiek lagun dituzten testuetan, ikerketa horretako hainbat datu interresgarri aurkituko ditugu.

### LABUR

#### Bi langile berri hasi dira Udalean oraingo astean

Arantxa Goikoetxea Antzuolako Gizarte Laguntzaileria berria, oraingo astean bertan hasi da lanean. Horrela, Karmele Korta langilearen amatasun baja beteko du hilabete batzuetan.


Bestalde, lan eta zerbiztuen arduraduna ere oraingo astean hasi da lanean, Iñigo Zubeldia da bera, aste-suarra. Hainbat zeregin izango ditu Iñigok; hala nola, azpiegituren egoera zaindu, obra txikiak egin edota herritako hainbat lan kontrolatzea.



Arantxa Goikoetxea.



Iñigo Zubeldia.



**MUEBLES IGEA**

Sukalderako eta bainurako altzariak  
Altzari rustikoetan  
espezializatuak

Zurrategi plaza 4, behea. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80



GERMAINE DE CAPUCCINI  
**HYDRASOIN**  
Zure azala hidratatzen du  
itsasoko freskotasunarekin

Ileapaindegia

Errekalde 2,  
behea.  
943 78 71 37  
ANTZUOLA

Ederterre aretoa

**BASERRIZBASERRI/ Azkarate**



**AZKARATETARRIN BASERRIA** 1489. urtean eraiki zuten Uzarraga auzoko baserri hori. Bi armari ditu: lehendabizikoa 1620. urterako, behintzat, bazeukan; eta bigarrena, berriz, 1762. urtekoa da, urte hartan bertan erregearen arma-epaileak onartu zuena. Azken armari hori da gaur egun Azkaraten ikus dezakeguna; 1994an jarri zuten fatxadan. Aurreko aldean puntu-erdiko arku dauka, eta atzeko aldean XV. edo XVI. mendeko ojiba-arkua dauka, baina azken hori estalita. XIX. mendean bi familia bizi ziren Azkaraten, baina gaur egun familia bakarra bizi da. Oraindik ere Azkaratetarrak bizi dira, eta hauxe da abizenaren eta baserriaren izenaren arteko loturari eusten dion kasu bakarra. Gaur egun, honako hauek bizi dira Azkaraten: Andoni Azkarate, Simona Laskurain eta Jesus Mari, Mikel, Xabier eta Joseba Azkarate bizi. /AINTZANE IRIZAR /ITURRIA: IÑIGO RAMÍREZ DE OKARIZEN 'ANTZUOLAKO BASERRIAK ETA ERROTAK'

**ATREBENTZIAEZPADA/ Sagardotegira juteko ohitturarik badaukazu?**



**JUAN TOMAS ZABALO**  
51 urte

Datorren astian bertan jungo naz, laneko lagunekin. Urtero juten gara lankidiok sagardotegira. Urtian pare bat aldiz juten naiz, asko gustatzen jat.



**ELVIRA BENÍTEZ**  
56 urte

Ez daukat ohitturarik. Ez naiz urtero juten, baiña gustatzen jat noizian behin jutia. Sagardua, jatekoa eta hango ambientia, dana gustatzen jat.



**PELLO MUGURUZA**  
48 urte

Aspaldian galduta daukat juteko ohitturia; izan be, oingo kuadrillakueri ez jakue gustatzen sagardotegira jutia; baiña lehen asko juten nitzan.



**MAIDER MARTÍN**  
16 urte

Ez; gaiñera, sekula ez naiz egon sagardotegi batian. Dana dala, badaukat gogua juteko, hainbeste sagardotegi kontu entzunda, kuriosidadia daukat.



**JABIER ZABALA**  
26 urte

Bai, bi aste barru goiatz; urtian behin, behintzat, juten gara kuadrillakuok. Asko gustatzen jat jutia; batez be, han sortzen dan girua gustatzen jat.

**TELEFONO JAKINGARRIAK**

**OSASUNA/LARRIALDIAK**  
DYA ..... 943 78 71 57  
Gurutze Gorria ..... 943 76 55 76  
Medikua ..... 943 76 62 23  
Praktikantea ..... 943 76 63 80  
Udaltzaingoa ..... 943 76 62 46  
Ertzaintza ..... 943 76 53 40

**UDALA**  
Udaletxea ..... 943 76 62 46  
Liburutegia ..... 943 76 60 65

**BESTELAKOAK**  
Idolaz ..... 943 78 60 12  
Herri ikastetxea ..... 943 76 62 68  
Erretiratuaren elkarte ..... 943 76 62 71  
Abadetxea ..... 943 76 64 16  
Anelkar (Kontxi) ..... 943 78 70 65  
Taxiak:  
Antonio Fernández ..... 669 15 65 40  
Jesus M. Fernández ..... 607 31 85 60

**MEZAK**

**ANTZUOLAKO PARROKIA**  
Lanegunetan eta zapatuetan: 09:30  
Domeketan eta jaiegunetan: 09:00, 11:30  
**UZARRAGAKO PARROKIA**  
Domeketan eta jaiegunetan: 10:00

**OHARRAK**

**ZINEMA EMANALDIA DOMEKAN**

Oraingo domekan ere zinema emanaldia izango dugu udaletxeko osoko bilkuren aretoan, 16:30ean. *Como perros y gatos* eskainiko dute oraingo domekan. Gogora ezazue domekero eskainiko dutela film bat udaletxeko aretoan, Aste Santura arte. Aurtengo ikasturtean, gainera, euskarazko film ugari eskainiko dituzte.

**ARGAZKIAK ETA ZORION AGURRAK**

Erretratu zaharren bat Bergarako edizioan argitaratu nahi izanez gero, KONTUOLAKo 943 76 03 97 telefono zenbakira dei dezakezue.

Bestalde, norbait zoriondu nahi baduzue, Antzuolan bertan argazkia eta informazioa lagatzeko aukera daukazue: astelehenean, arratsaldeko zazpiak baino lehen, Udal Liburutegira (Eguzki auzoan) eraman behar duzue argazkia.

**AITZ-GARBI**



taberna  
jatetxea  
Pintxoak eta  
kazuelatxoak.  
Bazkariak eta afariak  
Kalebarren 15. Tf. 943 78 70 51  
ANTZUOLA

**GOROSTI**

**Taberna**

943 76 62 96  
Zurrategi plaza  
ANTZUOLA

*Juan Cruz*  
ARGAZKIAK  
Herriko plaza 4. ☎ 943 78 70 66. ANTZUOLA

**ANTZUOLAKOHIZKERAN**

**ESAMOLDEA**

• **KOLORERIK EZ IZAN**

1. Gauza bat ondo ez dagoela edo zentzurik ez duela esateko modua. *Horrek ez dauka kolorerik be, hori zela izango da ba hola!*

2. Bi gauzaren artean alde handia dagoela, garbi dagoela adierazteko. *Etxaok kolorerik be, hartuik hau, edarragua dok-eta.*

**ATSOTITZA**

• **Emun eta kendu, sapuak hankia kendu.**

Norbaiti gauza bat eman eta gero kendu egiten bazaio, eta kendu egin nahi bazaio, hartu duenak esaera hori erabiltzen du, emandakoa ezin dela kendu adierazteko. Normalean, umeen artean esaten zen.

**HITZAK**

• **TONTORTU**

Tontorraren forma egitea. *Gaztaiña saldu bihar izaten zanian, tontortuta saldu bihar izaten zan. / Platera tontortuta etarra, bestela goasiak geratuko da-eta.*

• **TXEPEL**

Pertsona sinplea, sakontasun handirik gabekoa, arina. *Ez dot ezagutu holako pertsona txepelik! / Nik daukaten ile txepelakin ezin da ezer egin.*

*Jone Larrañagaren  
'Antzuolako hizkera' liburutik*

**ANTZUOLA**  
Apainketak eta  
isolamenduak  
Pladurrezko dibisioak  
Kalegoi 21 ANTZUOLA  
676 997 400  
Biltegia: 943 78 70 40

# Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2002ko otsailaren 22a / 88. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oxel Erostarbe • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com

## Udala eta Ozkarbi, frontoia erabiltzeko hitzarmena sinatzeaz

OXEL EROSTARBE

Asteetan, Udala eta Ozkarbi Pilota Elkartek sinatzeko zuten hitzarmenaren gainean esames ugari entzun dugu. Datorren Gobernu batzorderako akordioa lortzea espero dute. Ozkarbi ez du dirurik ordaindu beharko frontoia erabiltzeagatik.

Astelehenean batu ziren Ozkarbi Pilota Elkartekoak, frontoiaren erabilera dela eta Udalarekin sinatu behar duten hitzarmenaren gainean berba egiteko.

Udalak egin dien proposamenari zenbait aldaketa egitea nahi dute Ozkarbikoek, zenbait puntutan zalantzak dituzte eta. Udalak Mankomunitateko edo berak antolatutako partiduak daudenean epaile egiteko ardura Ozkarbikoengan utzi nahi du. Zenbait partidatan epaile egiteko prest egongo zirela onartu arren, Ozkarbikoak ez daude prest beti horrela izango dela hitzartzera.

Udalak frontoia astean behin garbitu eta behar diren konponketak egiteko ardura hartuko du. Partiduak dauden egunetan, frontoia garbitu behar dela pentsatuz gero, Ozkarbikoek hartuko dute horren ardura.

Entrenamendurik edo haurren ikastarorik ez dagoenean eta partidurik antolatzen ez dutenean, Ozkarbikoek ez dute frontoia erabiltzeagatik dirurik ordaindu beharko.

Udalarekin akordio batera iritsi arte, Ozkarbikoek ez dute argi izan lau t'erdiko txapelketa antolatuko zuten ala ez. Frontoian partiduak zeuden bakoitzean alokairua ordaintzea ezinezkoa izango zen-eta txapelketa behar bezala antolatzeko.

Astelehenean, txapelketarekin aurrera egitea erabaki zuten. Aurtengo txapelketa, ordea, desberdina izango da, ezingo dute eta nahi duten pilotari guztiek parte hartu. Guztira afizionatu eta gazte mailako 60 pilotari onenak gonbidatuko dituzte txapelketara. Afizionatu mailako txapelketa garrantzitsuenetako honekin laster hastera espero dute Ozkarbi Pilota Taldekoek.



Hitzarmenaren arazoa konpondu eta gero, laster ekingo dio afaizionatu mailako lau t'erdiko txapelketak.

### KIROLDEGIAN TARIFA BERRIAK

Aurrerantzean hauek izango dira kirol instalazioen erabileragatik ordaindu beharko ditugunak.

Pilotalekua argiarekin erabiltzeagatik 7,5 € (1.200 pta.) eta argirik gabe 4,5 € (750 pta.). Sautan erabiltzeagatik, ordua 3,5 € (600

pta.) izango da. Squasha erabiltzeagatik 3,5 € (575 pta.) izango da ordua. Dutxa, 0,75 € (150 pta.) ordaindu beharko da.



**JUAN LUIS UBERA / OZKARBI PELOTA ELKARTEKO KIDIA**

*"Frontoiaren erabilera ordaintzia, diru galera haundixa izango litzake guretzat"*

**Zelan hartu dozue Udalak frontoian erabillerarako egindako proposamena?**

Gauza positibua ikusten ditudugu, frontoian partiduak antolatzen ditudunian ez dogu erabiltzea ordaindu beharko-eta. Hala eta bezala, puntu batzuetan ez gare ados, Ozkarbikoak Udalan ekintza batzuetan inplikatu nahi gaittue-eta. Akordio batera helduko garela segurua da, bi aldiok horretara heldu

nahi dogu-eta.

**Hitzarmenaren gainean asko egin da berba, partiduak antolatzen ordaindu beharko zinuatela...**

Geu be nahiko harrirtuta geratu gara horrekin. Egunkarixan irakurri giñuan frontoian partiduak antolatzen ordaindu beharko giñuala. Horrek talde moduan parte hartzen dogun partiduetan eta antolatzen dogun txapelketan

diru galera haundixak izatia eragingo leuke.

**Zelan doia lau t'erdiko txapelketaren antolaketia?**

Hitzarmenian frontoia erabiltzeagatik ordaindu bihar ez dogula jasota geratuko dala lotuta euki arte, ez dogu nahi izan txapelketiakin hasia. Apiril bukaeran hasiko da lau t'erdikua. Berandu gabizenez, kategorixa bakoitzetik 24 edo 32 pilotari ekarriko ditudugu.

### LABUR

**Bake epailea izan nahi dutenentzat epea zabalik**

Martxoaren 8ko eguerdiko 12:00ak aurretik, udaletxeko bulegoetara hurreratu beharko dira bake epaile izateko interesa dutenak. Bake epailea eta ordezkia Lege baldintzak betetzen dituzten artean aukeratuko ditu Udalak lau urterako. Inor ez bada aukeratu, biztanleen artean aukeratuko da bake epailea.

**Gaur iluntzean euskal presoek aldeko bilkura**

Hileko azken bariku guztietan bezala, bilkura egingo dute gaur *Euskal Presoak Euskal Herrira* lemapean.

Bilkura plazan izango da iluntzeko 20:00etan. Aurrerantzean ere presoek eskubideak errespetatuak izan daitezten eskatzeko bilkurak egingen jarraituko dute.

**Sagardotegira irteera bertan behera geratu da**

Gaztetxeak zapatu honetatara ko antolatua zuen Sagardotegira irteera bertan behera geratu da nahikoa jendeak izana eman ez duelako.

Martxoan sei urte beteiko ditu Gaztetxeak eta egitarau zabala osatzen dihardute. Sagarroi eta Ken 7 bezalako taldeak hurbilduko dira.

**Batasunaren proposamenaren aurkezpena**

Datorren egunean, otsailak 28, gaueko 21:00etan Kompartide Demokratikorako Proposamena aurkeztuko du Batasunak liburutegian. Azken hilabeteotan landu eta osatutako proposamena aurkezteaz, Xabier Lasarte Batasuneko Gipuzkoako mahaiakidea arduratuko da.

HIRIGINTZA

# Dagoeneko 41 lagunek eman dute izena babes ofizialeko etxebizitzetako zerrendan

O.E.

Aurreko egunean, babes ofizialeko etxebizitzetako gainera bileran izan zen Udaletxean. Patxi Basuari alkateak, Kristina Zarrabeitia Udaleko arkitektoak eta Edorta Silva Elgeta 21 SLko gerentek eman zituzten Torrealdeko etxebizitzetako inguruko argibideak.

Osoko bilkuren aretoa bete egin zuten Torrealdeko eraikiko diren babestutako etxeen gainean interesa daukaten elgetar eta kanpotarrek. Etxebizitza horiekiko interesatuta 41 lagun daude.

Kristina Zarrabeitia Udaleko arkitektoak esan zuenez, momentu honetan Udalarendako garrantzitsuena da jakitea zenbat lagunek duten benetako interesa

babes ofizialeko etxebizitzetako; horren arabera zenbat etxebizitza eraiki erabakitzeko.

Izena jende dezente eman duela kontuan hartuta, seguru aski babes ofizialeko hogeita lau etxebizitza eraikiko dituzte. Erabakitzeko dago babes ofizialeko etxebizitzak zein etxebizitza bloketan kokatuko diren. Martxoaren bukaeran, PERI onartzen denean, guztiz erabakita geratuko dira bai etxebizitza kopurua baita kokalekua ere.

### IZENA EMAN DAITEKE ORAINDIK

Momentuz, Udalak ez du babes ofizialeko etxebizitzetako izena eman nahi dutenen zerrenda itxiko.

Datorren astean bertan etxebizitzetako inguruko batzarrean izan zirenei deituko diete, oraindik ere interesa duten jakiteko.



Elgetako Udalak espero du urte bukaeran hastea etxebizitzekin.

LABUR

## Elgetan lapurtu zuten kamera Bilbon agertu da

Domingo Iturbe kaleko etxebizitza baten aurreko martitzenean lapurrek eramandako bideokamera Bilbon egindako miaketa baten antzeman du hango Udaltzaingoak. Etxean sartzeko, plastikozko txartela erabili zuten lapurrek. Ertzainak adierazi digunez, joan den aspaldian prozedura hori erabilia egindako lapurretak ugartu egin dira gure ibarreen. Prozedura hori erabilia egiten diren lapurretak eragozteko era bakarra da etxetik irteten garenean atea ondo ixtea, sarrailari buelta batzuk emanda.

Eguaztenean estankotan eta Aintzane dendan lapurtu ondoren 250 kartoi tabako auto barruan utzita ihes egin zuten lapurren inguruko ikerketa zabalik du Ertzaintzak.

TXIMISTA

# Kanpandorrean erori zen tximistak kalte ugari eragin ditu

O.E.

Aurreko asteko egunean (otsailak 14) 11:30ak aldera elizako kanpandorrean erori zen tximistak kalte ugari eragin zituen. Kasu gehienetan etxeetako aseguruak ordainduko dituzte kalteak. Kanpandorreko tximistorratza izorratuta utzi zuen tximistaren indarrak.

Etxebizitzetako, kiroldegian, gaztetxean, industrialdean, udaldegian, elizan eta GOIBEKOKALEko bulegoan... Eragin zituen kalteak eguen goizean kanpandorreko tximistorratzetik herrira zabaldu zen deskarga elektrikoak.

Herriko nagusienek esan digutenez, aurretik sekula entzun gabeko zarata atera zuen trumoiak. Eta energia sarean ohikoa baino energia gehiago pilatzeak eragin zituen

kalteak ere izugarriak izan dira. Telefonikakoek esan digutenez, kalteak herri osoan izan direnez, ezin da zehaztu zenbat telefono izorratu diren. Ordenagailu askotan oinarriko eta komunikazioetako modemak eta energia elikadura iturri ugari ere izorratu ziren. Zenbait etxetako telebista, bitrozeramika eta elektragailuak ere kaltetu zituen trumoiak.

Kanpandorreko tximistorratzak ezin izan zuten tximistak askatutako energia guztia hartu, eta, ondorioz, hainbat noranzkotan zabaldu zen energia lurre-rantz. Artekalera elizako teilatutik behera zihoan erretenetik jaitsi eta hango estolda altxatu zuen. San Roke kalera, kanpandorretik eta elizako teilatutik harriak eta teilak erori ziren.

Tximistaren eraginez, eraikin kaltetuenak eliza eta udale-

txea izan dira. Elizan argindarraren koadroa eta argi instalazioa izorratu zituen. Udaletxean hiru ordenagailu izorratu ziren. Horrez gain, herriaren goiko aldean 30 farol, argindarraren koadroa eta programagailua izorratuta daude. Kiroldegian eta gaztetxean galdaretan eta zenbait aparailutan kalteak eragin zituen.

GOIBEKOKALEko bulegoan bi ordenagailu eta telefonoan egin zituen kalteak.

Baten tabernan mikrouhinak salto egin zuela, bestearen etxean salto egin zuena telefonoa izan zela, herritar guztien ahotan izan da tximista eguena.

### TXIMISTORRATZA KONPONDUKO DUTE

Egueneko tximistak kanpandorreko tximistorratza izorratuta utzi du, eta aste honetan bertan konponduko dute teknikariek.



## Hobekuntzak Kanpanzarko bidian

Azken bi astietan, Elgeta eta Kanpanzar arteko bidian konponketak egiten jardun dabe Diputaziñoko bihargiñek. Zaharrak zeuzen bazter babesak aldatu eta arrisku haundiko errebueltetan barrirak jarri dittue. Izan be, bide alboko piñadixak bota eta baztarrak garbittu zittuenetik hona, autoren batek istripua izanez gero ez zeukan babes haundirik./O.E.

**JAR EZAZU HEMEN ZURE PUBLIZITATEA**

Goibekokale



**PANA DE ROKUA JATEITXEA**

*Asteburuetan bertako babak eta saiheskia*

SALBADOR 10 ELGETA TEL. 943 76 82 73



**RECYDE, S.A.**  
Pagotza pol. ind. 20690 ELGETA, Gipuzkoa  
Tel. zentrala: 943 78 80 00. Faxa: 943 78 90 10  
Posta elektronikoa: recyde@recyde.es



ER-0182/2/95  
ISO 9002  
QS 9000  
ISO/TS 16949

## ERRETRATUZAHARRA


San Martin  
ikastetxeko  
ikasleak Bilbon

**O**raingo asteko erretratua Bergarako San Martin ikastetxeko ikasleek 1990. urtean egindako irteera batekoa duzue. Antza denez, eskolara-ko lan bat egin behar zutela eta, Bilboko itsasadarra ikustera joan ziren. Hango arduradunek era guztietako azalpenak eman zizkieten ibaiko nabigazioaren gainean. Erretratua hango bulegoetako baten ateratakoa da. Argazkian agertzen diren ikasleek 10-11 urte izango zituzten orduan. Honako hauek dituzue, ezkerretik eskumara:

**Aurrean:** Vanessa Gómez, Agustin Rueda, Francisco Martínez, Jorge Álvarez De Dios, Luis Murillo, Johanna Pérez, Maria Elisabet Blanco, Paloma Goenaga eta Bittor Gallastegi.

**Bigarren ilaran:** Ruben Zabaleta, Ander Ortigosa, Mikel Bakaikoa, Raul Ruiz, Irène Abad, Maria Jose Zafra, Rakel Molina, Ana Belen Martínez eta Nerea Cabanillas.

**Hirugarren ilaran:** Juan Miguel Caballero, Jokin Ramajo, Francisco



Santiago, Miriam Murugarren, Yoana Luceño, Ana González eta Aitor González.

**Atzean:** Jesus Gómez, Andoni Rodríguez, Julio Del Mazo, Jon Ortiz de Zarate, Yoana Heis eta Rakel Rubio.

**Argazkia:** Johanna Pérez.

## ADI IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatorz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

## NOLAALDATUDIRENGAUZAK

San Antonioko  
ermitari agur  
1997an

**H**errian azken urteotan aldaketa ugari izan dira, eta San Antonio auzoa dugu horren lekuko. Alboko bi argazkiak ikustea besterik ez dago. Antzuolatik datorren Deskarga erreka bideratzeko, XIX. mendeko San Antonioko ermita eta La Parra tabernako etxea bota behar izan zituzten 1997ko abenduan. Bi eraikin haiek auzoko adierazgarriena-takoak ziren.



**1997** Fran Letek 1997ko abenduan ateratako argazkian San Antonioko ermita eta La Parra taberna ikus daitezke (BUA).



**2002** San Antonio, gaur egun. Urteagan egiten ari diren babes ofizialeko etxeetan, etxabeetan, hain justu, ermita bat izango dela agindu zuen Udalak.



# Zumelaga

JATETXEA


60 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5. BERGARA. 943 76 20 21

## Zuri Beltz margoak

Barnealde eta kanpoaldean  
erreforma  
Pintura zerbitzu osoa  
Moketak

943 76 14 60  
607 447 494  
943 76 59 59  
Bergara



## Manufacturas LARRAÑAGA

LAN-BABESERAKO ARTIKULUAK

•Seinaleztapena  
•Jantziak

Leizeaga 1 BERGARA Tel. / faxa 943 76 59 53.



**Integratzailea  
Euskalduna  
Anitza  
Dohaina**

**2002-2003 ikasturtea**

**2-16**  
urte

**MATRIKULAZIO EPEA**  
otsailaren 18tik martxoaren 1era

### SAN MARTIN

HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA (HH-LH)

Boni Laskurain 25. Tf. 943 76 21 47

Ordutegia: 09:00etatik 13:00era eta 15:00etatik 17:00etara

### IPINTZA

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH)

Boni Laskurain 17-19. Tf. 943 76 31 42 / 20 82

Ordutegia: 09:00etatik 13:00era eta 15:00etatik 17:00etara



**SAN MARTIN - IPINTZA - M. ALTUNA**

B e r g a r a k o   i k a s t e t x e   p u b l i k o a k





Sukaldeen berritzea.

Bainugelen berritzea.

Zeramikan azken berrikuntzak.

Etxea berritzea ondo atera dadin, Jakinan gremio guztiak eskaini eta koordinatzen dizkizuegu.

Jakina, zurekin pentsatzen.



# JAKINA

BAINUGELAK • ZERAMIKA • SUKALDEAK  
Bergarako FAGOR banatzaile bakarra

**FAGOR**   
Sukaldeko altzariak

**AENOR**  
  
Producción  
certificada

**6**  
URTEKO  
GARANTIA

San Lorenzo Industri Pol., Amillaga 10. BERGARA.  
Tel.: 943 76 03 30. Faxa: 943 76 02 91.